

MOTIBAZIOAREN ONTZIA

**IKASTETXEKO IKASLEEN EUSKARAREKIKO
JARRERAK LANTZEKO PROPOSAMENA**

*ebete hizkuntza-zerbitzuak
2019-2020*

Aurkibidea:

1.- Zergatik landu horrelako proiektu bat? 4
2.- Abiapuntua 5
2.1.- Hizkuntzarekin harremana 5
2.2.- Erabileran eragiten duten faktoreak 6
3.- Aukeratu diren faktoreak 7
3.1- Kokatzeko oharrak 7
3.2.- Aukeratu diren faktoreak 8
4.- Jarrerak landu ditzaketan eragileak 15
5.- Irakasleen bidez faktoreetan eragiteko jarduerak16
5.1- Hizkuntza-gaitasuna: hizkera informala (5 jarduera)	.. 16
5.2.- Ingurune hurbila (0 jarduera)30
5.3.- Identitate kolektiboa (2 jarduera) 31
5.4.- Pertsona eta talde erreferenteak (1 jarduera)40
5.5.- Harreman sareetako hizkuntza-arauak (3 jarduera)42
5.6.- Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa (4 jarduera)	... 52
5.7.- Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa (3 jarduera)62
5.8.- Kontsumo eskaintza (3 jarduera)71
6.- Jarduera lagungarriak (3 jarduera)76
7.- Herriko eragileekin elkarlana 85

JARDUERA PROPOSAMENAK

Hizkuntza-gaitasuna: hizkera informala	Kiroletako esamoldeak	Gosea eta nekea	Ikastetxeko guneak	Adarra jotzeko esamoldeak	Egunerokotasune ko esamoldeak
Identitate kolektiboa	Euskarazko egoerak eta bizipenak	DBHkeokin saioa (LH6koek)	--	--	--
Pertsona eta talde erreferenteak	Erreferenteei galdezka	--	--	--	--
Harreman sareetako hizkuntza-arauak	Helduen jokabideak aztertzen	Gurasoen arteko harremanetarako erronka	Irakasleen jokabidea ulertzen	--	--
Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa	Abestien hizkuntza asmatzen	Euskarazko sorkuntza ezagutzen	Euskal kulturari jarraipena	BBB: Berria, Betikoa, Bitxia	--
Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa	Paisaia linguistikoa	Erabilera neurketa herrian	Erabilera neurketa herritiko kanpo	--	--
Kontsumo eskaintza	Nor dira gure erreferente?	Erreferenteen murala	Programa eta produktuak	--	--
<i>Jarduera osagarriak</i>	<i>Bizkotxoaren astea</i>	<i>Mezu sekretua</i>	<i>Espiak eta konplizeak</i>	--	--

1.– Zergatik landu horrelako proiektu bat?

Euskaldun eleanitzak

Gure ikasleak euskaldun eleanitzak izatea nahi dugu:

- Hizkuntza bat baino gehiago ondo ikasiko dituztenak.
- Euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabili nahi dutenak.

Beraz, hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea nahi dugu eta horretaz arro egotea. Hizkuntza aniztasunarekiko jarrera positiboa izatea nahi dugu: Euskal Herrian hizkuntza asko elkarbizi direla ohartzea eta horrekiko jarrera positiboa izatea.

Baina euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabiltzea ere nahi dugu.

Hainbatek inguru hurbilean asko erabiltzen dute. Kasu horietan ingurune hurbiletik kanpo ere euskara erabiltzeko gogoia izatea landu nahi da. Euskara hizkuntza minorizatua denez hainbat egoeretan hautatu egin behar izaten da, eta gure ikasleek euskara hautatzeko jarrera izatea nahi dugu: euskaraz izan daitezkeen egoerak euskaraz sortzea edo euskarara bideratzea. Bai ohiko harremanetan eta baita ohiko harremanetatik kanpo ere (eskualdetik kanpora ateratzen direnean, harreman berriak sortzen direnean...).

Inguru hurbilean euskara gutxi erabiltzen dutenen kasuan ere, gero eta euskara gehiago erabiltzeko jarrera izatea nahi genuke, gutxienez gertuko harremanetan.

Euskaldun eleanitzak izateko bidea garatu behar da: euskararekiko jarrera aktibo bat izatea nahi dugu eta hori landu daitekeela ikusten da.

2.- Abiapuntua

2.1.- Euskararekin duten harremana

Ikastetxeko ikasleak euskara nahiko gertu dutenen multzoan kokatzen dira:

- Euskara nahiko gertu: etxetik hainbatek euskara jasotzen dute baina beste hainbatek gaztelaniaz edo beste hizkuntzaren bat.
- Kanean euskarak leku handia du baina gaztelaniak ere presentzia handia du.
- Ikasleen artean euskaraz aritzeko erraztasuna eta ohitura dutenak daude, baina erraztasuna batez ere gaztelaniaz dutenak eta hizkuntza horretarako joera dutenak ere hainbat dira.
- Beraz, nahasketa ikusten da: beraien eguneroko bizitzan nagusiki euskaraz bizi direnak eta nagusiki gaztelaniaz bizi direnak. Horregatik kokatzen dira "nahiko gertu" multzoan: nahasketa hori ematen delako.

Zer lortu nahi genuke jarreraren proiektuarekin?

- Batez ere beraien arteko harremanetan finkatzeko jarrera izatea. Hau da, ikasleek (gehiengoak behintzat) beraien arteko harremanetan euskaraz egiteaz gain euskaraz egin nahi izatea.
- Horren osagarri, euskararen aldeko hautua egitea: ahalik eta harreman gehienetan euskaraz egin nahi izatea. Bai ohiko harremanetan baina baita ohikoak ez diren harremanetan ere.

2.2.– Erabileran eragiten duten faktoreak

Gazteen hizkuntza-ohituretan eragiten duten faktoreak aztertu zituen Soziolinguistika Klusterrak (*Euskararen GPSa, 2009*). Horiek abiapuntu ona izan daitezke zer eta nola landu beharko genukeen aztertzeko.

Gure ikasleek bai beraien arteko harremanetan baita bestelako harremanetan ere euskaraz egiteko nahia izatea eta erakustea nahi genuke. Faktore hauek guztiak eragiten dute jarrera horretan. Beraz, faktore horietan nola eragin aztertu daiteke.

Hauek dira faktoreak:

- **Ama-hizkuntza:** etxetik euskara jasotzea.
- **Ingurune hurbila:** kalean euskara asko entzutea, familian, etxean...
- **Bakoitzaren jarrerak:** euskararen aldeko jarrera izatea edo ez izatea.
- **Hizkuntza-gaitasuna:** ezagutzen dugun hizkuntzetako bakoitzean dugun gaitasuna. Adb: euskalkian aritzeko gai izatea, lagunarterako erregistro aberatsa...
- **Identitate kolektiboa:** norbera ibiltzen den giro eta taldeetan euskararen aldeko jarrerak ikustea, euskararekiko jokabide aktiboak ikustea...
- **Harreman sareetako hizkuntza-arauak:** harreman sare guztietan izaten dira hizkuntza-arauak. Euskarak nolako lekua du norbera ibiltzen den sare horietan?
- **Pertsona eta talde erreferenteak:** 2-3 helduagoak diren kuadrillek euskararekiko erakusten dituzten jokabideak, erreferenteak diren pertsonaiek erakusten dituztenak...
- **Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa:** hizkuntza bakoitzari buruz jasotzen ditugun mezuak (zein balorerekin lotzen diren...).
- **Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa:** euskararen ezagutza eta erabilera normaltzat ikustea, eskolarekin soilik lotzea...
- **Kontsumo eskaintza:** produktu eta zerbitzuak euskaraz eskura izatea (musika, eskola orduz kanpoko jarduerak...).
- **Input mediatikoa:** komunikabideetatik jasotzen ditugun mezuak.
- **Testuinguru politikoa:** legeak, testuinguru horietatik jasotzen ditugun mezuak, zerbitzu eskaintza...

3.- Aukeratu diren faktoreak

3.1.- Kokatzeko oharrak

Kontuan izan:

- Jarrerai buruz ari gara. Beraz: ez dugu bilatzen faktore bakoitza aldatzea-indartzea, baizik ikasleek faktore hauen atzean dagoena ezagutzea eta beraiek zer egin dezaketen ikustea. Adibidez: guk ezin ditugu beraiek ibiltzen diren harreman sareetako hizkuntza-arauak aldatu baina bai beraiek ikustea zein diren arau horiek eta aldatu nahiko balituzte zer egin dezaketen lantzea.
- Faktoreak elkarlotuta doaz, eta batean eragiten ahalegintzen garenean ziur beste batzuetan ere eragingo dugula.

Proiektuan nolako jarduerak landu daitezke?

- Ahalegindu beharko dugu ahalik eta ikuspegi zabalena izaten (ahalik eta ideia gehien sortzen) eta ondoren hori benetan gauzatu daitekeen proiektu batera ekartzen.

3.2.– Aukeratu diren faktoreak:

Ikastetxeko irakasleen artean ondoko faktore hauek jo dira lehentasunezko moduan:

- *Bakoitzaren jarrerak*
- Hizkuntza-gaitasuna
- Ingurune hurbila
- Identitate kolektiboa
- Pertsona eta talde erreferenteak
- Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa
- Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa
- Harreman sareetako hizkuntza arauak
- Kontsumo eskaintza

Argi dago faktore guztiek dutela garrantzia, baita zerrenda honetatik kanpo utzi direnak ere.

Bakoitzaren jarrerak

Zer nahi dugu?

- Gazteek euskararekiko jarrera aktiboak izatea. Hau da: euskararen alde egotetik euskaraz bizi nahi izatera eta euskararen aldeko hautua egitea.
- Euskara *nahiko gertu* daudenen multzoko ikastetxea denez, Hauxe da jarrerei dagokionez helburu zehatza: ikasleek, lagunarteko harremanetan, euskara asko erabiltzeaz gain gero eta euskara gehiago erabili nahi izatea eta harremanak euskaraz finkatu nahi izatea.

Proiektuaren erdigunea da. Ez diogu jarreraren faktoreari bere horretan heltzen, baina gainontzeko faktoreak landuz jarreretan eragiten dugu. Hori da erabiliko den bidea.

Zer nahi dugu?

- 1.- Eleaniztasunaren aldeko mezua ematea
- 2.- Hizkuntzak ondo ikasteko zer behar den konturatzea
- 3.- Hizkuntzekiko konplexurik ez izatea:
 - Euskalkia - Euskara batua
 - Gaztelaniazko azentua
- 4.- **Euskaraz dituzten mugez ohartzea eta horri begirako baliabideak eskaintzea (bereziki hizkera informalarri begira).**

Lehenengo hiru puntuak landuz beraien buruarekin konfiantza eta segurtasuna izatea bilatzen da.

- Ohartzea hizkuntza asko hitz egiten direla gaur egun Euskal Herrian eta hori aberastasun bat dela ikustea.
- Beraiek eleanitzak izango direla barneratzea eta hizkuntzak ondo ikasteko jarrera lantzea. Horretarako hiru gauza zaindu behar dituztela lantzea:
 - o Etxeko hizkuntza zaintzea: zenbat eta baliabide gehiago etxeko hizkuntzan orduan eta erraztasun handiagoa beste hizkuntzetan maila on bat lortzeko
 - o Hizkuntzak ondo ikasteko interesa
 - o Erabilera: hizkuntzetan erraztasuna izateko erabili egin behar direla azpimarratzea. Gaztelaniaz erraztasunik ez dutela iruditzen bazaie, egunerokotasunean gutxi erabiltzen dutelako izan daiteke. Horretaz jabetzea ona da, baina azpimarratuz maila ona dutela eta beharko balute berehala hartuko luketela erraztasun hori. Era berean, beste testuinguru batzuetan ikasten duten ikasleek euskaraz ikasi arren zergatik ez duten erraztasunik ulertzeko abiapuntua da.
- Hizkuntzekiko konplexurik ez izatea:
 - o Euskalkia-euskara batua: Euskara oso aberatsa dute, euskalkiak tresna indartsuak dira euskararentzat. Baina euskara batua ondo ikasteko jarrera ere beharrezkoa da, hainbat egoeretan beharrezko baliabidea baita (erregistro formaletan, adibidez).
 - o Gaztelaniazko azentua: gaztelaniaz maila ona dutela ikustea (egunerokotasunean gutxi erabiltzen dutenez erraztasuna ez dutela baina beharko balute berehala lortuko luketela

azaltzea) eta azentu berezia izatea ohikoa dela eta lotsarik ez dela izan behar lantzea (ez direla azentua duten bakarrak, gaztelaniadun gehienek azentu berezia izaten baitute).

Laugarren puntua garrantzitsua da euskararekiko jarrera aktiboak lortzera begira:

- Euskara asko erabiltzen duten arren, hizkera informalean hutsuneak izaten dituzte: adarra jotzerakoan, iraintzerakoan... Eta esamolde asko gaztelaniatik hartzen dituzte.
- Gertuko harremanetan gero eta euskara gehiago erabiltzeko nahia landu nahi dugu, baina garrantzitsua da beraiek konturatzea gaitasunari dagokionez hizkera informalean badituztela muga batzuk eta hori zailtasun bat dela gero eta euskara gehiago erabiltzera begira.
- Euskararekiko jarrera aktiboak izatera begira beharrezkoa da beraiek horretaz ohartzea, euskaraz esamolde asko daudela edota sortu daitezkeela ikustea, eta euskaraz gero eta gehiago erabiltzeko gogoia erakustea.

Ingurune hurbila

Zer nahi dugu?

1.- Gertuko harremanetan euskara asko entzun eta erabiltzeko aukera izatea.

2.- Euskararekiko jarrera aktiboak ikustea: eredu egokiak jasotzea.

Gure ikasleek euskara asko entzun eta erabiltzeko aukera dute. Baina euskararekiko jarrera aktiboak ikustea beharrezkoa da beraien euskararekiko jarrerak lantzena begira: gero eta harreman gehiagotan eta gero eta egoera gehiagotan euskararen aldeko hautua egiten duten pertsonak/erreferenteak.

Erreferenteen gaiarekin oso lotua dagoen puntua da: euskararekiko jarrera aktiboak dituzten erreferenteak izatea garrantzitsua da.

Identitate kolektiboa

Zer nahi dugu?

1.- Euskaldun izatearen inguruan hausnartzea

2.-Euskara jakiteak eta erabiltzeak zein ezaugarri ematen dizkigun ikustea.

Euskararekiko jarrera aktiboak izatera begira modu honetako hausnarketak lagungarriak izan daitezke: Mundu globalizatu batean zein ezaugarri ematen dizkigu euskaldun izateak? Nahi al ditugu horrelako ezaugarriak? Euskaldun izateko modu bakarra al da? Berdina al da euskara erabiltzen duena eta erabiltzen ez duena? Eta abar.

Horrelako hausnarketen bidez beraiek ondorio batera iristea bilatzen dugu: euskaraz bizi nahi duten euskaldunak izatea.

Pertsona eta talde erreferenteak

Zer nahi dugu?

1.- Euskarazko erreferente asko izatea: pertsonai ezagunak eta gertuko erreferenteak (gazte helduagoak, adibidez).

2.-Euskararekiko jarrera aktiboa duten erreferenteak izatea.

Euskararekin identifikatzen dituzten erreferenteak izatea garrantzitsua da: euskaraz egiten duten pertsonai ezagunak, herriko gazte helduagoak...

Baina bereziki euskararekiko jarrera aktiboa duten erreferenteak eskaintzea bilatu behar da: euskaraz bizitzeko ahalegina egiten dutenak eta beraien eguneroko bizitzan gero eta egoera gehiagotan eta gero eta harreman gehiagotan euskaraz aritzeko ahalegina egiten dutenak. Hauek azaldu ahal izango diete zeintzuk diren zailtasunak, zeintzuk beraiek dituzten hutsuneak edo kontraesanak, nola jokatzen duten horren aurrean, eta abar.

Harreman sareetako hizkuntza-arauak

Zer nahi dugu?

- Euskara egoera minorizatuan dagoela konturatzea eta horrek eragin zuzena duela beraiengan.
- Herrian euskara asko erabiltzen den arren, erabilera horrek hutsuneak eta zailtasunak badituela ohartzea.
- Hizkuntza-arau horiek aldatu daitezkeela eta beraiek eragile izan daitezkeela konturatzea.

Euskarak zein egoera bizi duen aztertu nahi da eta herrian hutsuneak eta zailtasunak badituela ohartzea.

Bestalde, hizkuntza-arauekin oinarrian zer dagoen ere landu daiteke, normaltzat ematen diren jokabide asko ez direla horrela konturatzeko: errespetuz gaztelaniara jotzea egoera askotan, adibidez.

Hizkuntza-arau horiek aldatu daitezkeela ere ikus dezakete, eta noski, beraiek eragile izan daitezkeela ere bai.

Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa

Zer nahi dugu?

- Hizkuntza balio indartsuekin ere lotzea: modernoa da, etorkizuneko da, indartsua da...
- Hainbat aurreiritzi haustea: zaila da, zaharra da, isolatua egon zelako ez zen galdu...

Hizkuntza balio indartsuekin lotzen badute, horrek eragin zuena izango du euskararekiko jarreretan. Euskara inguruko hizkuntza batzuk baino askoz txikiagoa da hiztun kopuruari dagokionez, baina hizkuntza indartsua da, modernoa, berritzailea... Aldiz, soilik tradizioarekin eta folkloreakin lotuko balute, jarrerei begira eragin kaltegarria izan dezake.

Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa

Zer nahi dugu?

- Euskarak bizi duen benetako egoera ezagutzea
- Egoera horrek beraingan nolako eragina duen konturatzea
- Hizkuntzaren normalizazioan eragile izan daitezkeela ikustea

Egoera soziolinguistikoa ezagutzeak lagunduko die testuingurua ulertzen eta, beraiek euskaraz bizi nahi badute, zer eta nola egin dezaketen konturatzen. Atal honek ere garrantzia handia du euskararekiko jarrera aktiboak garatzera begira.

Kontsumo eskaintza

Zer nahi dugu?

- Euskarazko produktuak ezagutzea eta eskura izatea: produktu asko eta anitzak. Musika, telebista, irratia, liburuak, komikiak, aldizkariak, kontzertuak, antzerkiak...

Kontsumo eskaintzaren arloa landuta lortu dezakegu ikasleei erreferente asko eskaintzea, euskara balio indartsuekin lotzea, eta abar.

Proiektutik kanpo utzi diren faktoreak

Hauek ere garrantzitsuak dira, baina proiektua egingarria eta bideragarria izan dadin, lehentasun batzuk jartzea erabaki da eta hauek kanpo utzi dira.

- **Ama-hizkuntza:** ama-hizkuntza euskara izatea oinarri garrantzitsua da gazteen hizkuntza-ohituretara begira.
- **Input mediatikoa:** komunikabideetatik hizkuntzei buruz mezuak jasotzen ditugu. Euskarari dagokionez, eta komunikabideen arabera, mezu egokiak edo desegokiak izaten dira (adibidez, zaila dela askotan entzuten da). Horiek eragina dute, adibidez, hizkuntzarekiko eta egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioan.
- **Testuinguru politikoa:** legeek eragin handia dute gizartean hizkuntzek duten lekuan eta haurren eta gazteen hizkuntza-sozializazio prozesuan: ofiziala izatea edo ez izatea, hizkuntza horretan ikasteko aukera izatea, erabilera indartzeko ekimenak bideratzea...

4.– Jarrerak landu ditzaketen eragileak

ikastetxeko ikasleen euskararekiko jarrerak lantzerantz begira, eragile ezberdinek parte hartu dezakete bide horretan:

- Irakasleek
- Gurasoek
- Herriko eragileek
- Gazteek

Proiektu honetan batez ere irakasleen arloa landu da, eta irakasleen bidez jarreretan eragiteko hainbat jardura proposatzen dira (*erabileran eragiten duten faktoreak* lan tresna moduan erabiliz).

Interesgarria da beste eragileak ere kontuan izatea: eragile guztiak elkarlanean aritze lortzen bada, eragina handiagoa izango da.

Hor kokatzen da, adibidez, azken bi ikasturteetan DBHko ikasleek LHko 6 mailakoekin egin dituzten saioak ikasturte amaieran: gazteak beraiek erreferente moduan aurkeztu nahi izan dira.

Bide hauke gehiago garatzea aukera ona izan daiteke.

5.– Jarduerak

5.1.– Hizkuntza gaitasuna

Hizkuntza-gaitasuna: hizkera informala I

KIROLETAKO ESAMOLDEAK

Jardueraren azalpena

Gaia kokatzea:

- Kirolen inguruan egun berezi bat edo saio berezi bat antolatuko dugula aipatu diegu. Egund horretara begira kiroletako esamoldeak landu nahi ditugula esango diegu: erabiltzen dituztenak ikusi, berriak landu, eta abar.

Jardueraren azalpena:

- Lehenengo urratsa:
 - o *Euskararekin jolasean: Kiroletan zer?* Fitxa erabiliko dugu (eranskinetan dago).
 - o Taldeka banatuko ditugu (2-3 kideko taldeak). Bi minutu izango dituzte zerrenda egiteko: Zein esamolde erabiltzen ditugu kirolean ari garenean animoak emateko, kexatzeko, kideei gauzak esateko, jokoarekin zerikusia duten gauzak adierazteko...? Adibidez: pasa baloia! Animo!...
 - o Taldeka zerrenda egin eta gero, talde batek berea irakurriko du. Beste taldetakoek osatu egingo dute: lehenengo talde horretakoek aipatu ez dituztenak gehituko dituzte.
 - o Gerta daiteke euskaraz erabiltzen dituzten esamoldeen zerrenda soilik egitea. Horrela bada, galdetu beharko diegu gaztelaniazkorik ez ote duten erabiltzen. Erabiltzen badituzte jaso nahi ditugula. Horiek aipatzen dituztenenean, lehenengo zerrenda hau osatuta utziko dugu.

- Bigarren urratsa:
 - Boluntarioak eskatuko ditugu, nahikoa da 4-5 izatea.
 - Hurrengo bi egunetan atsedean tartetean orri bat eraman behar dute eta erabiltzen ari diren esamoldeak apuntatu behar dituzte. Batez ere: animoak, kexak eta kirolarekin lotura zuzena duten esamoldeak. Ez zaigu hizkuntza inporta, guztiak apuntatu behar dituzte.
 - Diskrezio handia behar dute. Besteek ez dute jabetu behar, ahal den neurrian behintzat, zertan ari diren.
 - Behaketa egiteko prest agertu diren ikasleek bi jolastordutan behaketa egingo dute eta esamoldeak jaso fitxa batean. Behaketa amaitzean kartulina batean jarriko dituzte (kartulina batean euskarazkoak eta beste batean gaztelaniazkoak).
 - Behaketa egiteko fitxa proposamena eranskinetan dago: *Zeintzuk dira esamoldeak?* Izenekoa.
 - Seguruena, behaketaren ondoren lagundu egin beharko diegu jasotakoa kartulinetan prestatzean eta besteei aurkezteko moduan jartzen.

- Hirugarren urratsa:
 - Saio batean, behaketa egin duten ikasleek jaso dituzten esamoldeak irakurriko dituzte eta kartulinak denon bistan jarriko dituzte. Erabilienak zein diren galdetuko diegu.
 - Arbelenean, lehenengo saioan ateratako esamoldeak eta behaketa bidez ateratakoak multzotan banatuko ditugu: animoak ematekoak, irainak, kexatzekoak...
 - Animoetan kokatuko gara:
 - *Hiru esamolde berri* izeneko fitxa banatuko diegu (eranskinetan dago).
 - Euskarazko animoen zerrenda bikoiztu nahi dugula esango diegu ikasleei. Taldea banatuko ditugu oraingoan ere eta talde bakoitzak gutxienez 3 esamolde berri proposatu behar ditu zerrenda osatzeko (ezagutzen dituztenak sartu ditzakete, berriak asmatu...). 2-3 minutu emango dizkiegu horretarako.
 - Ondoren, talde bakoitzak bereak esango ditu eta zerrenda osatuko dugu.
 - Hurrengo egunetan, irakasleak kartulina batean jarriko du euskarazko animoen zerrenda osoa eta denon bistan jarriko du: gelan, pasiluan...

- Laugarren urratsa:
 - Kirolaren egunean euskarazko animoak soilik erabiltzea proposatuko diegu: euskarazko animoak soilik erabiltzeko gai izango al zarete egun horretan? Frogatzeko prest?
 - Horretarako:
 - Animoen zerrenda osoa bistan jarriko dugu.
 - Ikasle bakoitzak hiru aukeratu beharko ditu.
 - Bozketa moduko bat egingo dugu eta sei erabilienak hartuko ditugu. Sei animo horiek erabiliko ditugu erronkaren egunean.
 - Bakoitzak orri batean apuntatu ditzala.
 - Lehenbailehen erabiltzen hasteko proposatuko diegu, erronkaren egunerako entrenamendu moduan. Erronkaren egunean irakasleok oso adi egongo garela ere esango diegu, euskarazko esamoldeak soilik erabiltzen dituzten ikusteko. Erronka betetzeko gai diren frogatzeko, alegia.

- Bosgarren urratsa:
 - Kirolen egunean, kirolak egiten hasi aurretik:
 - 1.- Erronka gogoraziko diegu. Gai izango ote dira? Lortzera animatuko ditugu.
 - 2.- Lelo bat asmatuko dugu denon artean, gure taldeak animatzeko lelo bat edo bi.
 - 3.- Leloak eta animoak entsaiatuko ditugu.
 - Kirolekin hasten garenean:
 - Errefortzu positiboak asko erabiliko ditugu: oso ondo, ari zarete erronka betetzen, erraz ari zarete...
 - Tarteka sortutako leloa ere erabiliko dugu. Lelo hau oso egokia izan daiteke momentu batean sumatzen badugu bateren bat gaztelaniazko esamoldeak erabiltzen hasi dela. Une horretan, leloa kantatzen hasteko esatea erronka gogorazteko modu bat izan daiteke, baina gaizki ari direla esan beharrik gabe.
 - Tentsioa jaisten bada, eta gaztelaniazkoak erabiltzen ere hasiko balira, erronka gogoraziko diegu: oso ondo ari zineten eta jarraitu, azken txanpa da eta animo...

- Seigarren urratsa:
 - Kirolaren egunaren ondoren ebaluazio bat egingo dugu erronkari buruz: gustura aritu ote ziren, esamoldeak erabili ote zituzten (denak edo batzuk), zaila egin ote zitzaien gaztelaniazkoak ez erabiltzea, ondo pasa zuten kirolaren egunean eta erronkaren kontuarekin...
 - Guk nola ikusi ditugun ere esango diegu: prozesu osoan zehar izan duten parte hartzea, erakutsi duten interesa, eta abar.
 - Ahalegindu direla ikusten badugu (lortu edo ez), errefortzu moduan sari sorpresa bat ematea ez legoke gaizki: diploma bat, adibidez.

Oharrak:

- Oso argi izan behar dute jolas bat dela, beraien buruari jartzen dioten erronka bat
- Guk oso argi eduki behar dugu irakasleon zeregina erronka bete dezaten laguntzea dela: animatu, gogorarazi, errefortzu positiboak eman... Azken batean, huts egiteei baino lorpenei eman garrantzia, ez kargu hartu...
- Helburu oso xumea: helburua ez da saiakera honen ondoren hizkuntza ohitura batzuk aldatzea, hizkuntza ohiturak aldatu daitezkeela ikustea baizik.

EUSKARAREKIN JOLASEAN: KIROLETAN ZER?

ZEIN ESAMOLDE ERABILTZEN EDO EZAGUTZEN DITUZUE ONDORENGO EGOERETARAKO?		
ANIMOAK EMATEKO	<i>KEXATZEKO (kideei, arbitroari...)</i>	<i>KIROLAREKIN ZERIKUSI ZUZENA DUTENAK</i>
Heldu goiari!	Bakarrik nengoela!	A ze gola!
Hori dunk sasoi!	Ostikoa eman dit!	Saskira!
Emon egurra!		Hori txapa izan da!

HIRU ESAMOLDE BERRI

Gogoratu edo asmatu animoak emateko beste hiru esamolde. Erabili irudimena!

Adibidez

Lehendik zerrendan dagoen esamolderen baten bertsio berri bat egin:

Esamoldea: Eman egurra!

Esamolde berria: Eman sua!

Bi hitz elkartzearekin jokatu:

Kirol jakin batekin zerikusia duten hitzak: baloia, eskua, saskia, hirukoa, taldea...

Piropo bat edo ezaugarri oso positibo bat: Ederra, polita...

Lotura: Animo, sartu hiruko eder bat!

Ezagutzen ditugun abestietara jo esamolde bila:

Gatibu: Bang gang txiki txiki bang bang Egokitzea: Baloia saskira sartzean... Bang bang!

Jarri hiru esamolde berri (edo gehiago):

- 1-
- 2-
- 3-

Hizkuntza–gaitasuna: hizkera informala II

GOSEA ETA NEKEA

Jardueraren azalpena

Giroitze lana:

- Euskara erakusten dugula, baina hizkuntzak ikastea ez dela beti gauza serioa izaten azalduko diegu. Hizkuntzarekin jolas batzuk egingo ditugu, eta, espero dugu beraiek ondo pasatzea eta aurrerantzean ere euskararekin jolasteko gogoia piztea.

Azalpena:

- Euskararekin jolastu nahi dugula aipatuko diegu. Gaia: gosea.
- Ideien ekaitza egingo dugu:
 - o Zer esaten dugu goseak gaudenean?
 - o Zer esaten dugu nekatuta gaudenean?
- Arbelean idatziko ditugu bururatzen zaizkien guztiak. Ahalik eta zerrenda luzeena egin behar da. Ez badituzte asko proposatu, irakasleok beste hainbat proposatuko dizkiegu.
- Taldeka banatuko ditugu: 3–4 kideko taldeak. Talde bakoitza zerrenda osatzen ahaleginduko da 3 minutuz, eta ondoren talde handian aipatuko ditugu. Ez bazaie ezer bururatzen, asmatu ditzatela!
- Ondoren, talde bakoitzak esketx labur bat prestatu beharko du (minutu pare bat gehienez). Zerrendatik gutxienez 10 esamolde erabili beharko dituzte.
- Agian bi saiotan egitea egokiagoa izan daiteke, denboraz eskas ibili baikaitezke.

Hizkuntza–gaitasuna: hizkera informala III

IKASTETXEKO GUNEAK

Jardueraren azalpena

- Eskolako txokoei izenak jarriko dizkiegula esango diegu: hitzei esanahia aldatuz, moldatuz... izen dibertigarriak jarriko dizkiegu.
- Oraingoan ere ideien ekaitza egingo dugu. Eskolak dituen txoko gehienak zerrendatzen ahalegindu behar dute eta arbelean jarriko ditugu: ikasgela, gimnasioa, patioa, pasiloak, komunak, zuzendariaren bulegoa, irakasleen gela, tailerra, atezainaren gela...
- Areto horiei guztiei izena aldatzea proposatuko diegu, izen dibertigarriak jartzea. Horretarako:
 - o Taldeka jarri beharko dute. 3–4 kideko taldeak egin beharko dituzte.
 - o Talde bakoitzari zerrendako 3–4 espazio emango dizkiogu.
 - o Espazio bakoitzarentzat gutxienez izen bat asmatu behar dute.
 - o Horretarako bide ezberdinak erabili ditzakete:
 - Espazio horrek zein sentimendu sortzen dizkieten pentsatu
 - Espazio horretan gertatu zaien gauza barregarriren bat oroitu
 - Eskolarekin zerikusirik ez duen beste elementuren batekin konparatu: espazio ontzi bat, itsasontzi bat, kiroldegi bat...
 - ...
- Abiapuntu moduan hainbat adibide emango dizkiegu:
 - o Ikasgela: burupelotalekua
 - o Pasiluak: hankarintokia
 - o Patioa/jolaslekua: jolas–enea
 - o ...
- Taldeka izenak landuko dituzte eta ondoren talde handian botako dituzte.

ebete

- Marrazteko prest dauden 2-3 boluntario eskatuko ditugu. Hurrengo egunetan, boluntario horiek eskolaren mapa bat marraztuko dut eta espazio bakoitzari izen berri hori jarriko diote.
- Marrazkia gelan itsatsiko da eta ikasle bakoitzari folio neurriko kopia bat ere emango zaio.
- Leku bakoitzaren izena errepikatuko da eta erabiltzera gonbidatuko ditugu.
- Egin ditugun ariketen inguruan galdetuko diegu: gustatu al zaie euskararekin jolastea? Ondo pasa al dute? Zer iruditzen zaie euskaraz hitzak asmatzea edo ezezagunak dituztenak ikastea?

Hizkuntza-gaitasuna: hizkera informala IV

ADARRA JOTZEKO ESAMOLDEAK

Aldizkarietan irudi xelebreak bilatuko ditugu. Grazia egin dezaketenak.

Grazia gehien egiten dieten irudi batzuk aukeratzeko eskatuko diegu. Irudi horiei buruz hitz egingo dugu. Zer ikusten da? Zer adierazte du? Grazia egiten digun hori nola adieraziko genuke?

Irudi bakoitzaren zerrenda egingo dugu.

Ondoren, irudia kartulinetan itsatsi eta inguruan hitz egindakoak jarriko ditugu.

Horiek pasiloan itsatsiko ditugu.

Aukera interesgarri bat izan daiteke irudi batzuk interneten bilatzea. Power Pointean jar daitezke, eta egindako zerrenda ahotsez grabatu. Grabazio hori eskolako web gunean jar daiteke.

Hizkuntza–gaitasuna: hizkera informala V

EGUNEROKO EGOERETAN ERABILTZEN DIREN ESAMOLDEAK

Jardueraren azalpena

Badira esamolde batzuk eguneroko harremanetan asko erabiltzen direnak: mezu bat indartzeko, elkarrizketa bat amaitzeko, eta abar.

Mezu horietako asko erdaraz erabiltzeko ohitura dugu.

Horren inguruan aritu nahi dugula esango diegu. Zeintzuk dira askotan erabiltzen ditugun esaldi horiek? Ideien ekaitza egingo dugu.

Adibidez:

- Qué rollo
- Ya te digo
- Ya te vale
- Que me lo creo
- ...

Behaketa egitea proposatuko diegu. Adi egon behar dute eta hurrengo egunetan zeintzuk erabiltzen dituzten konturatu. Batez ere beraiek erabiltzen dituztenak interesatzen zaizkigu baina beste geletakoek edo gurasoek erabiltzen dituztenek ere balio dute.

Hiru–lau egun pasa ondoren, hasieran genuen zerrenda osatuko dugu.

Horietatik batzuk aukeratuko ditugu: 10–15 artean. Taldeka, esaldi horien ordezekoak bilatu behar dituzte: sortu edo galdetu egin ditzakete (etxean, kalean...). Zein esaldi erabili daiteke horren ordez?

Esaldi guztien ordezekoak osatzean, guztiak mural batean jarriko ditugu.

Erronka bat proposatuko diegu: 4 edo 5 aukeratuko ditugu denon artean, eta datozen bi asteetan horiek erabiltzen saiatu behar dute. Eta erdaraz esan dutela konturatzen badira, euskaraz errepikatu behar dute. Lortuko al dugu 4–5 esaldi horiek euskaraz erabiltzen hastea?

Epe bat emango diegu, egunero gogoraraziko diegu, eta epearen ondoren baloratu egingo dugu:

- Ahalegindu dira? Lortu dute? Zer moduzko sententzioak dituzte?

Errefortzu positiboak emango dizkiegu: ahalegina baloratuko dugu.

Froga berri bat proposatuko diegu.

Oharra: Oso zaila da ohitura horiek aldatzea. Gizartean errotuta daude eta ordezeko txukunak aurkituta ere kostatzen da ohitura horiek aldatzea. Agian esaldi batzuekin lortu daiteke. Eta, benetan eraginkorrak izateko, gizarteratze lana egin beharko litzateke (eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileek erabiltzea, gurasoek erabiltzea eta guk ere erabiltzea). Azken batean: esamoldeek bizitasuna eta naturaltasuna lortzeko, intentsitate bat behar dute (giroan egon behar dute).

5.2.– Ingurune hurbila

Ez da jarduerarik txertatu puntu honetan.

Gertuko harremanetan euskara asko entzun eta erabiltzeko aukera izatea nahi dugu gure ikasleek, eta zorionez, gehien gehienek badute aukera hori.

Bestalde, eta hemen bai zer egina badagoela, euskararekiko jarrera aktiboak ikustea nahi dugu: eredu egokiak jasotzea.

Erreferenteekin zuzen zuenean lotutako gaia da hori. Bertan proposatzen diren jarduerak balio dute puntu honetarako ere.

5.3.– Identitate kolektiboa

Identitate kolektiboa I

Kokatzea

Hizkuntza-ohiturez eta erabilera arauz konturatzen hasia: eskolan eta eskolatik kanpo euskararen erabilera ezberdina dela ikustea eta horretaz hitz egitea.

Euskararen erabilerarekiko mezu positiboak ematea.

Helburuak:

- Euskararen erabilerari buruz hitz egitea
- Euskara erabiltzeaz harro sentitzea: errefortzu positiboak ematea
- Euskara gero eta gehiago erabiltzera gonbidatzea

Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatuko dugu: eskolaren helburuak hizkuntzen ezagutza eta euskararen erabilerari dagokionez, gure kezka erabileraren inguruan...
- Galdera: euskara asko erabiltzen al dute?
- Taldeka jarriko ditugu eta herriko planoaren banatuko diegu: plaza, kultur etxea, kiroldegia... Beraientzat ohiko lekuak direnak jarriko ditugu. Margotu egin behar dituzte: zein hizkuntza erabiltzen dute gune horietan? Guztia euskaraz = gorria, gehiena euskaraz = berdea, gehiena gaztelaniaz = urdina eta guztia gaztelaniaz = morea.
- Amaitzen dutenean, horri buruz hitz egingo dugu: asko erabiltzen al dute? Non gehien? Non gutxien? Zergatik?
- Ondoren, eskolako mapa banatuko diegu: gela, pasiloak, patioa, jangela... Hori ere margotuko dute.
- Horri buruz hitz egingo dugu: non erabiltzen dute gehien? Non gutxien? Zergatik? Kaleko egoeretan baino gehiago erabiltzen al dute?...
- Mezu bat emango diegu eta horri buruz hitz egingo dugu:
 - o Mezua: gaztelania gehiago erabiltzen duzue batzuk, baina guztiok euskara asko ere erabiltzen duzue. Gutxienez eskolan. Saiatuko gara ahalik eta mezu positiboena ematen: badakigu askorentzat gaztelaniara jotzea dela errazena eta horregatik baloratzen dugu euskaraz aritzeko ahalegina, gero eta erraztasun gehiago duzue, eta abar.
 - o Elkarrizketarako galderak: Zer egin dezakegu euskara gehiago erabiltzeko?...

Bigarren saioaren azalpena:

- Euskararen erabileraren gaiarekin jarraitu nahi dugula aipatuko diegu.
- Ikusi dugu euskara ere asko erabiltzen dutela. Erabilera hori handia edo txikia den neurtzeko modu bat bizipenak direla aipatuko diegu: zein gauza positiboekin lotzen dugu euskara?

- Ideien ekaitza moduko bat egingo dugu eta horrelako galderak erabiliko ditugu lagungarri:
 - o Euskara aritu diren zein egoera gogoratzen dituzte eta beraientzat positiboak-pozgarriak izan direnak? Adibidez: txangoak, jaialdiak, ekitaldiak...
 - o Ikastetxearekin lotutakoak zein dira?
 - o Ikastetxearekin lotura ez dutenak? Kanpaldiak? Kirola?...
 - o Gustatu zaizkien antzerki edo emanaldiak? Kultura etxean, zineman...
 - o Gustuko euskarazko musika taldeak edo abestiak?
 - o ...
- Ahalik eta zerrenda luzeena osatuko dugu.
- Mezua emango diegu:
 - o Euskaraz gauza asko egiten dituzuenez, euskaraz bizipen handiak eta indartsuak dituzue. Euskaraz ondo pasatzen duzue.
 - o Hori guretzat garrantzitsua da: irakasleak gara baina guk ikasleek euskara ikasteaz gain euskaraz ere bizitzea nahi dugu.
 - o Aurreko saioan ikusi dugu hainbatek gertuko harremanetan (ikastetxean) euskara gehiago erabiltzen dutela beste harreman batzuetan (kalean) baino. Zenbat eta gehiago zaindu euskararen erabilera gertuko harremanetan, gero eta erraztasun handiagoa izango dute kaleko egoeretan euskara erabiltzeko.
 - o Eta hori lortzen badute, bizipen positiboen zerrenda amaigabea izan daiteke.
- Erronka bat ere proposatu diezaiekegu: zer egin dezakegu bizi garen inguruan datozen asteetan euskaraz? (normalean egiten ez dugun zerbait). Adibidez: erosketetan euskara erabiltzen saiatu, ekitaldiren bat ikusi, zinea euskaraz... Aukeratu dezatela egingarria den zerbait eta egin dezaten gonbidatu.

Identitate kolektiboa II

institutuko DBHko ikasleak LHkoen erreferente

Kokatzea

Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoak datorren ikasturtean institutuko ikasleak izango dira. DBHko ikasleekin, berriz, jarreraren inguruan hainbat jarduera egiten dira.

Bi horiek lotu nahi dira:

DBH3ko ikasleak LH6koenagan joatea nahi da, eta haientzat erreferente izatea. Saio bat prestatuko da non ikasle horiek LH6koekin euskararen erabilerari buruz hitz egingo duten.

DBH4ra iristen direnean besteak DBH1era iritsiko dira. Une horretan beste saio bat egingo da, institutuan kokatzeko aurkezpen moduko bat.

Identitate kolektiboaren puntuan sartu da: erreferenteen bidez euskararen erabilerari buruz hitz egin nahi da, eta beraiek euskaraz egiten duten komunitatearekin identifikatzea beraien burua.

Helburuak:

- Institutuko dinamikaren berri eman nahi zaie LH6ko ikasleei, eta, bereziki, euskararen erabilerari buruz egoera zein den eta beraiegandik zer espero den azalduko zaie.

Nola egingo da?

- Udaberrian DBH3ko ikasle talde bat osatuko da. Borondatezkoa.
- Helburua azalduko zaie eta dinamika prestatuko da beraiekin.
- Binaka edo hiruak joango dira LH6ko taldeetara.
- Bi saio egingo dira: bat institutuari buruzkoa eta bestea euskararen erabilerari buruzkoa.

- Udazkenean DBH4ko talde bat osatuko da (udaberriko berbera izan daiteke).
- Helburua azalduko zaie eta dinamika prestatuko da beraiekin.
- Binaka edo hiruak joango dira DBH1eko taldeetara (hauek dira udaberrian LH6n zeudenak).

Udaberriko lehenengo saioa:

- DBHko ikasle bakoitzak bere burua aurkeztuko du: izena, non ikasi zuen, zein gai edo arlotan duen erraztasuna eta zailtasunak, zein alde aurkitu zuen LHtik DBHra iristean...
- Saioaren arrazoia azalduko diete:
 - o Institutuko ikasleen euskara batzordekoak dira.
 - o Ikasleak direnez, institutuaren dinamikaren berri azaldu nahi diete.
 - o Euskara batzordekoak direnez: euskararen erabileraren inguruan ere hitz egin nahi dute.
- Hizkuntza aldetik zein alde dagoen ere azalduko dute: zenbat euskara erabiltzen zuten LHn eta DBHn, Batxilergoan zer aurkitu duten, bere garaian zerk eman zien atentzioa...

- Institutuaren berri emateko 5 galderen zerrenda bat aurkeztuko zaie LHko ikasleei. Adb:
 - o Zein dira gai zailenak?
 - o Zein da aldaketarik handiena LHtik DBHra?

- Zer moduz beste ikastetxeetakoekin nahastean?
- ...
- *(Saioak prestatzerakoan DBHko ikasleekin beraiekin aukeratu daitezke gai garrantzitsuenak edo deigarrienak eta horien erantzunak).*
- Ikasleek postitetan idatzi beharko dute gehien interesatzen zaizkien bi galderen zenbakiak eta guztiak bilduko dira.
- Aukeratutako ordenean erantzungo dituzte Batxilergoko ikasleek galderak.
- Erantzuten duten bitartean ikasleekin elkarrizketak ere sortu daitezke: galdera gehiago egin, horiek erantzun...
- Oharrak:
 - Batxilergoko ikasleei argi azaldu behar zaie, institutuari buruzko elkarrizketak sortzen direnean euskara hutsean izan behar dutela. Hau da: ikasleren batek beraiei erdaraz egiten badie ez ulertuarena egin behar dutela eta euskaraz egitea eskatu.
 - Power punta erabiltzeko aukera balego, institutuko hainbat guneren argazkiak ere egin daitezke eta power pointean jarri. Azalpenak ematerakoan atzean argazkiak jar daitezke. (Ez dute testuarekin lotura zuzena izan beharrik, autonomatikoki pasatzen diren argazkiak izan daitezke).

Udaberriko bigarren saioa:

- Aurreko saioan institutuaren berri hitz egin da baina oraingoan gai garrantzitsu bat landu nahi da: euskararen erabilera institutuan.
- Lehenengo mezua:
 - Gure eskualdean gero eta euskaldun gehiago gara: gero eta gehiagok dakigu euskara. Zuek ere hor zaudete.
 - Euskararen erabilera ere gero eta handiagoa.
 - Argi daukagu euskara erabiltzea gure esku dagoela eta guk gero eta gehiago erabili nahi dugu.
 - Ikusi dugu institutura iristean hainbatek euskara gutxiago erabiltzen dutela, eta horrekin kezkatuta gaude. Euskara batzorde bat sortu dugu euskararen erabilera indartzeko.

- Sei egoera jarriko dizkiegu:
 - o Familia: etxea, osaba-izebak, lehengusuak...
 - o Kalea: lagunartea, plaza...
 - o Festa giroa: jaiak, jaialdiak, udako festak...
 - o Sare sozialak eta komunikabideak
 - o Eskola orduz kanpoko jarduerak: kirola, musika eskola...
 - o Musika: gustuko musika taldeak...

- Galderak egingo dizkiegu puntu bakoitzaren inguruan:
 - o Zenbatek erabiltzen duzue euskara etxean? Eta osaba-izebekin? Eta lehengusuekin?
 - o Zenbatek egiten duzue lagunartean euskaraz? Eta plazan zaudetenean?...
 - o Zein dira zuen gustuko festak edo festarako giroak? Jaiak, diskotekak edo dena delakoak.
 - o Zein sare sozial erabiltzen dituzue? Telebista ikusten duzuenean zer ikusten duzue?...
 - o Zein jarduera egiten dituzue eskolatik kanpo? Musika, kirola...
 - o Zein musika talde gustatzen zaizkizue?...

- Puntu bakoitza aipatzen dugunean gometzak emango dizkiogu bakoitzari.
 - o Ikasle bakoitzak galdera bakoitzeko bost gometza izango ditu
 - o Gelako horma batean bi kartulina handi jarriko ditugu: batek euskara adierazten du eta besteak gaztelania.
 - o Galdera egiten dugunean, ikasleak altxa, eta kartulinetan gometzak jarri behar dituzte: ikasle bakoitzak erabakiko du zenbat gometza jarri bakoitzean. Gune edo egoera bat guztia gaztelaniaz bada, bost gometzak kartulina horretan, biak agertzen badira bati bat edo bi eta besteari besteak...
 - o Bost galderak egindakoan kartulina bakoitzean zenbat gometza dauden ikusi ahal izango dugu.

- Bigarren mezua:
 - o Euskara asko erabiltzen duzue, gutxienez eskolan, baina baita askok eskolatik kanpo ere.
 - o Hori poztekoa da: harro egon behar duzue.

- Institutuan euskararen erabilera datuak eskasagoak dira: behera egiten du.
 - Baina zuek asko erabiltzen duzue. Mantendu. Ez jaitsi erabilera.
 - Eta euskara gutxi erabiltzen dutenekin biltzen bazarete, edo batzuek zailtasunak badituzte euskaraz erraz aritzeko, lagundu iezaiezue. Zuek euskaraz egiten badiezue beraiek ere egingo dute eta gero eta erraztasun handiagoa izango dute.
 - Aldiz, batzuen artean euskaraz egiten hasten bazarete, beste batzuek ere erdarara joko duzue... eta nahi ez duzuen egoera askotan gaztelaniaz egiten amaituko duzue.
- Azken mezua emango diegu:
- DBHra iristen direnean gutxienez LHn erabiltzen duten hainbeste erabiltzera gonbidatzen ditugu: ez dezala erabilerak behera egin. (Erabileraren inguruko ariketari erreferentzia egingo zaio).
 - Ez hori soilik: gehiago erabiltzera ere gonbidatzen ditugu. Prest egon daitezke? Gu laguntzeko prest gaude.
 - Nahi badute euskara batzordean ere parte har dezakete.
 - Irailean ikusiko dugu elkar.

Iraileko saioa (institutuan egingo dutena DBH1era iristean):

(Institutuko euskararen erabilera neurketarik ba al dugu? Horrela ez bada, komeniko litzateke saio hauen aurretik bat egitea. Oso sinplea izan daiteke. Datu hori erabiliko dugu saioan)

- DBHko ikasle bakoitzak bere burua aurkeztuko du: izena, non ikasi zuen, zein kurtsotan dagoen...
- Saioaren arrazoia azalduko diete:
 - Institutuko ikasleen euskara batzordekoak dira.
 - Lehengo urtean egindako saioa aipatuko diete: gogoratzen zarete...?
- Euskararen erabilerari buruz hitz egingo dugu:
 - Erabilera datu batzuk emango dizkiegu:
 - Eskoriatzako kale erabilera: orokorra eta gazteena
 - Herriko kale erabilera: orokorra eta gazteena

- Institutuko erabilera
- Institutuan denok euskaldunak gara: guztiok badakigu. Baina erabilera ez da handiegia.
- Ez diogu inori errurik bota nahi, baina erabilera handiagoa izatea nahi dugu.
- Jar diezaiogun gure buruari erronka: zenbatera igo daiteke euskararen erabilera urte batean?
- Horri buruz hitz egingo dugu eta adosten saiatuko gara:
 - Non jarri dezakegu helburua?
 - Zein zailtasun izan ditzakegu? Zer dago gure esku?
- Mezu nagusia emango diete:
 - Euskara asko erabiltzera gonbidatzen zaituztegu.
 - Askok nahi dugu euskaraz bizi, eta horretan ahalegindu gaitzke beste ikaskideekin euskara mantenduz. Erdaraz egiten dizunari ere euskaraz erantzun.
 - Euskararen erabilera institutuan indartu egin nahi dugu. Gora egin dezake eta hori nahi dugu. Horretan ahaleginduko gara.
 - Zein da abiapuntua? Gutxienez lehengo urtean erabiltzen zenuten adina erabiltzea, eta hortik aurrera euskara erabiltzeko gogoia erakustea.
- Euskararen inguruan egingo dituzten jardueren berri emango zaie:
 - Euskararen eguna, korrika...
 - Euskara Batzordearen berri emango diete: nola antolatzen den, zer egiten duten...
 - Euskararen erabileran eragile izatera gonbidatuko dituzte. Adibidez: batzordean parte hartzera.
 - Lortuko al dugu erabilera helburua?

5.4.– Pertsona eta talde erreferenteak

GERTUKO ERREFERENTEAK ESKAINTZEN

Egokia eta eraginkorra izan daiteke erreferenteekin harremanetan jartzea, bereziki gertuko erreferenteekin. Zer esan nahi du honek?

- Beraientzat erakargarria izan daitekeen norbait: jarduera berezi bat egiten duelako (kirol bat, musika...), beraiek egingo duten zerbait egiten duelako (ikasketak...) edo dena delakoa.
- Hizkuntza aldetik antzeko ibilbidea duelako: testuinguru euskaldun batekoa, euskaraz ikasi duena...

Horrelako erreferenteek, beraien bizipenak kontatzeaz gain, hizkuntzekin izan duten harremana ere kontatu dezakete eta hor hartzen du proiektuan benetako garrantzia. Hau da, ikasleek ezagutu dezatela beraientzat erreferente izan daitezkeen horiek nolako harremana duten eta izan duten hizkuntzekin:

- Nola egiten zuten etxean? Eta lagunekin? Eta kalean?
- Zer aurkitu dute beste leku batzuetara mugitu direnean? Zein zailtasun izan dituzte harreman batzuetan euskaraz egiteko? Noiz pasa dute lotsa? Eta noiz sentitu dira harro?
- Zein hutsune ikusten dituzte euskararen egoerari dagokionez? Lehen eta orain modu berean ikusten dute?
- Gaztelaniarekin zer moduz moldatzen dira? Lotsarik pasa izan dute erraztasunagatik edo azentuagatik? Ikasi behar izan dute gaztelaniaz? Zer moduz?
- Eta ingelesarekin? Zein ibilbide izan dute?
- ...

Erreferenteekin harremanetan jartzeko modu errazena pertsona horiek institutura ekartzea izan daiteke. Bestelako bide batzuk bidaltzea ere interesgarria izan daiteke.

Ez da beste jarduerarik txertatu multzo honetan, baina beste multzoetako jarduera batzuk zerikusi zuzena dute: Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa multzokoak eta Kontsumo eskaintza multzokoak, adibidez.

5.5.– Harreman sareetako hizkuntza–arauak

Harreman sareetako hizkuntza–arauak I

Kokatzea

Gaia: Harreman sareetako hizkuntza–arauak.

Herrian euskara asko erabiltzen den arren, hainbat harreman eta egoeretan gaztelaniak nolako lekua duen ikustea eta horren inguruan hausnartzea.

Helburuak

- Inguruko hizkuntza-errealitateaz jabetzen hastea.
- Beraien burua eragile moduan ikusten hastea.

Jardueraren azalpena

Ezaugarriak:

- Bi saio erabiliko ditugu jarduera honetan. Horretaz gain, bi saioen artean ikasleek erronka bat izango dute.

Azalpena:

- **Lehenengo urratsa:**
- Euskararen erabilerari buruz hitz egingo dugu beraiekin: euskara asko erabiltzen dute, baina... Non erabiltzen dute euskara? Eskolatik kanpo erabiltzen al dute? Nork dauka etxean erabiltzeko aukera? Nork ez? Kanean non erabiltzen dute? (*Garrantzitsua: etxean euskara egiteko aukerarik ez dutenak ez dute gaizki sentitu behar, zaindu hori. Mezuak egokia izan behar du: euskara erabiltzeko aukerei buruz hitz egiten ari gara, deskripzio bat da. Etxetik euskara jasotzea ez da hobe edo txarragoa*).
- Kaleko egoeretan zentratuko gara: Kanean non erabiltzen dute euskara? Kiroldegian? Kultur etxean? Entrenatzaileekin? Dendetan?... Eta non ez dute erabiltzen? Ba al daude euskara erabiltzen ez duten egoerarik? Zergatik? (adibidez, besteak euskaraz ez dakielako).
- Mezu bat emango diegu: euskal herritar askok ez dakite euskara. Hori ez da ez ona ez txarra, baina horrela da. Horren ondorioetako bat da euskaraz egin nahi badugu beti ezin dugula egin: batzuk ez dakitelako. Baina beste ondorio bat ere badago: agian euskaraz izan daitezkeen egoera batzuetan erdaraz egiten dugula.

- Ikerketa bat egin nahi dugula esango diegu: ikertzaile talde bat gara! Jakin nahi dugu euskara dakiten helduek nola jokutzen duten egoera ezberdinetan.

- Egoera ezberdinen zerrenda bat jarriko diegu. Euskaldunek nola egiten dute egoera horietan?
 - Betiko dendan ogia erosterakoan
 - Telefonoz ezagun bati deitzerakoan
 - Telefonoz matxuraren bat konpontzeko deitzerakoan: iturginari, arotzari...
 - Hipermerkatuan ordaintzerakoan
 - Kiroldegian kirolen bat egiterakoan
 - Donostiako arropa denda batera joan eta zerbait eskatzerakoan
 - Bankuan gestioaren bat egiterakoan
 - Medikura joatean
 - Kanean ezezagun bati zerbait galdetu behar diotenean (ordua adibidez) Zarautzen, Donostian eta Gasteizen.
 - (zerrenda osatu edo moldatu daiteke) Zein egoera gehiago datozkizue burura?

- Zer iruditzen zaie beraiei? Nola egiten dute helduek egoera horietan? Erantzunak jaso eta aukera ematen badu eztabaidatu egingo dugu.

- Zerrenda hori idatziz emango diegu eta hauxe proposatu:
 - Etxekoak euskaldunak badira: etxeko heldu bat aukeratu eta erantzun ditzala galderak. Erantzunen batean esaten badu ez duela euskaraz egiten edo beti ez duela egiten, arrazoa ere galdetu eta apuntatu.
 - Etxekoak ez badira euskaldunak: heldu euskaldun bat aukeratu (entrenatzailea, aisialdiko begiralea...) eta berari egin galderak.

- **Bigarren urratsa:**
- Astebeteren ondoren erantzunen inguruan arituko gara. Zeintzuk izan dira erantzunak? Espero genituenak? Zein egoeretan ez dute euskaraz egiten? Zergatik?
- Ondorio batera iritsi nahi dugu: helduek euskara asko erabiltzen dute baina badira egoerak euskaraz egiteko aukera izan eta egiten ez dutenak.
- Mezu bat emango diegu: zuek euskaldunak zarete eta askok euskaraz bizi nahi duzue. Zergatik oraingoan ez zarete zuek helduei proposatzen diezuenak euskara gehiago erabiltzeko? Animateko ditugu horretara?
- Guztion artean idatzi bat egitea proposatuko diegu. Idatzian mezu hauek agertu behar dute gutxienez:
 - o Herrian euskara asko erabiltzen da, baina hutsuneak ere ikusi ditugu.
 - o Herri euskaldun batean bizi gara eta gehienok euskaraz bizi nahi dugu. Gu saiatzen gara, eta zuek ere saiatu!
 - o Euskalduna bazara, zaindu egoera hauek (ikusi ditugun hutsuneetako adibideak jarri daitezke)
 - o Euskalduna ez bazara: ikasi gauza batzuk eta saiatu erabiltzen, dibertigarria ere izan daiteke. Esamoldeen zerrenda bat egin dezakegu.
- Idatzi hori etxera eramango dute.

Harreman sareetako hizkuntza-arauak II

Kokatzea

Gaia: Harreman sareetako hizkuntza-arauak.

Harreman sareetan hizkuntza-ohiturak finkatzen direla ikustea, baina aldatu daitezkeela eta beraiek ere eragile izan daitezkeela konturatzea. Gurasoen arteko harremanak erabiliko dira horretarako.

Helburuak:

- Euskararen erabilerari buruz hitz egitea
- Euskararen erabilera indartzera begira, ikasleak eragile izatea
- Gurasoen arteko harremanean euskararen erabilera indartzea

Lehenengo saioaren azalpena:

Gaia kokatuko dugu: ikastetxetik ahalegin handia egiten dugu ikasleen artean euskara asko erabil dezaten, eta pozik gaude eskolan euskara asko erabiltzen delako eta hainbatek ahalegin handia egiten dutelako.

Guraso askok ere nahi dute beraien seme-alabek euskaraz egitea, eta ziur askotan eskatu izan dietela hori.

Baina nolako da euskararen erabilera eskolatik kanpo? Erabilera neurketaren bat hartuko dugu eta datu nagusiena azalduko diegu ahalik eta modu grafikoenean (zenbakiak baino irudiak erabiliz):

- Erabilera batz bestekoa (eta aukera balego, helduen artekoa)
- Erabilera eskolan

Ikusten dugu erabilera eskolan kalean baino handiagoa dela.

Zer egin dezakegu guk kalean euskara gehiago entzun dadin? Ideien ekaitza egingo dugu.

Bi multzotan bereiziko ditugu: guk guretzat egin dezakeguna (hau da, ikasleek euskara gehiago erabiltzeko ahalegina), eta besteengan eragiteko egin dezakeguna.

Bigarren saioaren azalpena:

Aurreko saioko ideiak gogoraraziko ditugu.

Besteengan eragitearen inguruan hitz egingo dugu: gurasoak hartuko ditugu horretarako:

- Eskolak ikasleen gurasoak kalean topo egiten dutenean zertaz hitz egiten dute? Guztien artean zerrendatxo bat egingo dugu.
- Euskaraz dakiten gurasoek nola egiten dute beraien artean? Euskaraz? Guztiek? Euskara ez dakitenek beraien artean? Eta euskara dakitenek ez dakitenekin?

Erantzunak ziurrenik nahiko logikoak izango dira: euskaraz ez dakitenek ezin dute euskaraz egin...

Baina euskara gehiago erabil al daiteke gurasoen artean? Adibidez: Guztiek erabil al dezakete “Egun on, zer moduz?” eta “Ondo” moduko elkarrizketa bat? Euskara asko jakin behar da?

Zerrenda bat egingo dugu modu horretako esaldiekin: gurasoek zertaz hitz egiten duten hartuko dugu abiapuntu moduan.

Zerrenda osatuko dugu eta gurasoentzat oharra ere prestatuko dugu guztion artean: “oso arto gaude gure eskolan euskara asko erabiltzen delako, baina euskara gehiago indartu nahi dugu eta gurasoon artean euskara gehiago erabiltzera animatzen zaituztegu. Adibidez, gurasoon artean modu honetako esaldiak erabiliz”.

Oharrak:

- Aste pare bat pasatzen direnean oso egokia litzateke berri ere gaia atera eta ikasleei galdetzea ea ba ote dakiten gurasoek ahaleginik egin ote duten. Horri buruz hitz egin dezakegu.
- Modu honetako jarduera bat oso ondo lotu daiteke, adibidez, Euskararen Egunarekin. Aurretik ikasleekin landu eta gurasoei begira euskararen egunerako erronka izan daiteke.

Harreman sareetako hizkuntza-arauak III

Kokatzea

Euskararen erabilerari buruz eta hizkuntza-ohiturei buruz hitz egitea.

Hizkuntza-ohiturak aldatzekoa edo indartzeko erronkak proposatzea eta gehiago erabiltzeko ahalegin hori errefortzu positiboekin lotzea.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Euskararen erabileraren inguruan hausnartzen jarraitu nahi dugula esango diegu. Dinamika batekin hasiko gara horretarako: postitak.
- Galderak egingo dizkiegu eta postit handietan idatzi behar dituzte erantzunak eta arbelean itsatsiko dituzte.
- Lehenengo bi galderak beroketa moduan erabiliko ditugu: Zein da gustukoena duzuen kolorea? Nora joan nahiko zenukete hurrengo oporretan?
- Hurrengo hiru galderak (bi nahikoa izan daitezke) erabilera buruzkoak izango dira: Zer sentitzen duzue irakasleek *egin euskaraz* moduko zerbait esaten dizuetenean? Zer sentitzen dute irakasleek zuei hori esateko? Irakasleek erdaraz egingo balute eta zuek bazinete haiek euskaraz egitea nahiko zenuketenak, zer sentituko zenukete ez duzuela lortzen ikustean? (*galderak ondo pentsatu behar dira, beraiek euskara gehiago erabili nahi luketela onartzea bilatzen dugu, gero aurrera pausoak proposatu ahal izateko*).
- Arbelean euskararen inguruan jarri ditugun postitak irakurriko ditugu eta horiei buruz hitz egingo dugu. Gutxi gora behera ondorio honetara iritsi nahi dugu: euskara gehiago erabili nahi lukete baina ez dute nahi irakasle bat ondotik euskaraz egiteko eskatzen ibiltzea. Badakigu, beraiek nahi badute, euskara gehiago erabiltzeko gai direla guk ezer esan gabe ere. Jolas bat proposatuko diegu astebeterako.
- Mezua modu honetara ere osatu daiteke: ulertzen dugu hainbatek gaztelaniarako joera izatea. Guk gaztelania ere ondo ikastea nahi dugu eta lagunduko diegu horretan. Baina euskararen erabilera ere landu nahi dugu, eta ohartu gara hainbat harremanetan kostatzen dela hori. Lagundu nahi dizuegu horretan aurrera egiten.

Jolasaren azalpena:

Egunero erronka bat proposatuko diegu. Lortuko al dute?

1 erronka: Atentzioa ez deitzea

Zenbat aldiz hurbildu izan da irakasle bat zuengana eta eskatu dizue euskaraz egiteko? Hori izango da erronka: Lortu behar duzue hurrengo bi egunetan gehienez lau aldiz hurbiltzea zuengana. Baina ez pentsatu erraza izango denik! Irakasleek badakite zuen erronka zein de eta saiatuko dira askotan atentzioa deitzen. Lortuko al duzue?

2 erronka: Errefortzu positiboak lortzea

Irakasleek zuek euskara asko eta gustura erabiltzea nahi dute. Dagoeneko lortu duzue atentzioa gutxitan deitzea, baina lortuko al duzue zoriontzea? Hau da, lortuk al duzue zuengana hurbiltzea eta zoriontzea euskara asko entzuten ari delako? Badakigu ez dela erraza, irakasle batzuei asko kostatzen baitzaie goraipamenak egitea, baina ziur lortuko duzuela! Lortu behar duzue, datozen bi egunetan gutxienez 4 aldiz zoriontzea.

3 erronka: Atsedean tarte bat euskaraz / Egun oso bat euskaraz / Aste oso bat euskaraz ...

Erronka handiena. Proposatzen dizuegu atsedean tarte oso batean euskaraz egitea. Lortuko al duzue? Irakasleok laguntzeko prest gaude: beraz, erdara jotzen baduzue zuengana hurbilduko gara, ez dizuegu atentzioa deituko baina elkarrizketan parte hartuko dugu eta horrekin konturatuko zarete euskaraz egitea gogorarazten ari garela. Lortuko al dugu?

**5.6.– Hizkuntzarekiko gizarte
pertzepzioa: euskara balio
indartsuekin lotzea**

Euskara balio indartsuekin lotzea I

Kokatzea

Gaia: Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa.

Euskara balio indartsuekin lotzea nahi dugu, eta saio hauetan musika hartuko da horretarako bide moduan. Batetik, euskarazko erreferenteak eskaini nahi zaizkie, eta bestetik, euskaraz zenbat gauza sortzen ari diren ikustea nahi dugu.

Helburuak:

- Euskaraz musikan gauza asko eta berritzaileak egiten direla ikustea: bai euskal musikaren inguruan baita euskaraz egiten den musikaren inguruan ere.
- Erreferente euskaldunak eskaintzea.

Idea bat dago honen atzean: euskal musika askotan balio tradizionalekin lotzen dugu. Hori ez da txarra, berez, baina horrekin bakarrik lotzea bai. Ikustea nahi dugu euskaraz gauza asko eta oso ezberdinak egiten direla. Euskaraz edozer egin daiteke eta egiten da, eta beste kontu bat da hiztunok hori baloratzen dugun edo beste hizkuntza batzuetan egiten denari balio gehiago ematen diogun.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Euskal musikari buruz hitz egin nahi diegula esango diegu. Horretarako, galderak egingo dizkiegu eta denon artean erantzungo ditugu.
 - 1.- Euskarazko zein abesti ezagutzen ditugu? Egin al dezakegu 30 abestiren zerrenda 2-3 minututan? Esaten dituzten abestien izenak edo hasierak arbelean idatziko ditugu.
 - 2.- Zer da euskal musika? Zerekin lotzen dugu? Zein musika klase edota talde datozkigu burura?
 - 3.- Euskaraz abesten duten zein talde ezagutzen ditugu? Zeintzuk gustatzen zaizkigu?
 - 4.- Ezagutzen ditugun talde horiek eta euskal musika zein musika klaserekin lotzen dugun galdetzean... bat al datoz? Rok musika aipatu al dute, adibidez?
 - 5.- Beraien iritzia eskatuko diegu... Euskaraz gauza erakargarriak eta berritzaileak sortzen al dira? Edo soilik gauza tradizionalak-ohikoak? Zer iruditzen zaie? Adibidez: zer gustatzen zaie entzutea gaur egun? Zein abesti daude modan beste hizkuntza batean bada ere? Zein estilotoakoak dira abesti horiek? Zein musika klasetan kokatuko genituzke? Estilo horretako musikarik egiten al da euskaraz? Egin al daiteke?
 - 6.-Aipatu ditugun musika klase horiek guztiak euskaraz egingo balira, euskal musikaren barruan kokatuko genituzke? Zer iruditzen zaie?
- Galdera horien inguruan hitz egingo dugu eta beraien iritzia emango dute. Ez ditugu epaituko baina gure iritzia ere emango diegu. Kontuan izan:
 - Bigarren saioan landuko denarentzat sarrera bat dela.
 - Idei pare bat azpimarratu beharko genituzkeela: 1.- euskaraz egiten bada, euskalduna da. Berdin da zein musika klase den. Beste hizkuntzetan ere berdina gertatzen da. 2.- Gaztelaniaz edo ingelesez modan dauden abesti askoren estiloa ezin da esan hizkuntza horretan sortutako estiloak direnik (rok edo hip hop musika gaztelaniaz, adibidez), eta, beraz, euskaraz ere berdina berdina egin daitekeela.

Bigarren saioaren azalpena:

- Musika klase ezberdinetako 10-12 abesti prest izango ditugu: rok musika, trikitixa, flamenkoa, hip hopa, bosa nova... Batzuk euskararekin erraz identifikatuko dituztenak eta beste batzuk euskararekin identifikatzea zaila egingo zaienak.
- Bikoteka jarriko ditugu eta bakoitzari orri bat emango diogu. Bertan zenbakiak agertuko dira (1tik 12ra) eta lau hizkuntza (euskara, gaztelania, ingelesa eta katalana).
- Abesti bakoitzaren hasiera jarriko diegu, argi ikusi behar da zein musika klase den baina ez da entzun behar letra.
- Bikote bakoitzak beraien ustez zein hizkuntzatan den jarri beharko du.
- Ondoren, berriz jarriko diegu musika bakoitza baina orain letra ere bai.
- Nork asmatu du? Nork ez?
- Garrantzitsua izango da euskarazko musika eta besteak tartekatzea. Baina: rap musika euskaraz izatea, trikitixa gaztelaniaz, flamenkoa ingelesez eta euskaraz... Hau da, aurreiritzi batzuk hankaz gora jarri behar ditugu.
- Horri buruz hitz egingo dugu: zenbat asmatu dituzte? Zerk ema die atentzioa? Eta abar.
- Amaitzeko, abesti batzuk (ahal bada bideoak) jarriko dizkiegu:
 - o Modan dauden talde pare bat: musika edota bideoak
 - o Azken hilabeteetan aurkeztu diren bi-hiru gauza berri
 - o Bitxikeriren bat: bertsolaritzaren inguruan sortu den gauza berriren bat, esperimenteren bat...
- Mezu bat argi uzten saiatuko gara: euskaraz gauza asko eta berritzaileak ere sortzen dira. Euskaraz egiten bada euskalduna da. Eta, guk ez baditugu musika horiek edo talde horiek ezagutzen, ez du esan nahi euskaraz ez denik gauza erakargarririk sortzen. Irratietan eta telebistetan gaztelaniazko eta ingelesezko gauzak aurkitzea askoz errazagoa da (hizkuntza boteretsuak dira alde horretatik ere), baina interes pixka bat jartzen baldin badugu euskarazko gauza asko aurkituko ditugu. Eta nahi baldin badugu... sortu ere bai!

Euskara balio indartsuekin lotzea II

Kokatzea

Gaia: Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa.

Erabileran eragiten duen faktoreetako bat hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa da: hizkuntza bakoitza zein balioekin lotzen dugun. Euskara balio indartsuekin lotzea nahi dugunez, horren inguruan hausnartuko dugu eta hainbat adibide aurkeztuko dizkiegu.

Helburuak:

- Euskara zein balioekin lotzen duten ikustea eta horri buruz hausnartzea
- Euskaraz edozer egin daitekeela eta gaur egun zer eta nola egiten den aztertzea

Lehenengo saioa:

- Zer egiten da euskaraz kultur arloan?
- Kulturarekin zein arlo edo gai lotzen dituzte? Ideien ekaitza egingo dugu: musika, antzerkia, bertsolaritza, literatura...
- Zer egiten da euskaraz arlo horietan? Zer ezagutzen dute? Zein aktore, musikari, idazle, musika talde...?
- "Ikerketa" bat egiteko boluntarioak eskatuko ditugu. Euskal kulturaz zer gauza berri ari diren sortzen ezagutu nahi dugu. Hiru edo lau kideko taldeak izango dira. Boluntario asko badira talde asko eta gutxi badira talde gutxi.
- Talde bakoitzak bere gustuko arlo bat hartuko du. Guztiek antzeko hartzen badute, guk "bideratuko" ditugu arlo ezberdinak hartzera.
- Talde bakoitzak lortu behar du besteek ezagutzen ez duten zerbait aurkitzea eta gelara ekartzea:
 - o Musika talde berriren bat, euskararekin lotzea kosta egiten zaigun musika estiloren bat...
 - o Antzerki berriren bat, interneten aurkitu daitekeen laburmetrai gustukoren bat...
 - o Bertsolaritzan egin den gauza berritzaileen bat: jazzarekin nahastea, bertso tramak...
 - o ...
- Aste pare bat emango dizkiegu hori bilatzeko eta gelan aurkezteko moduan prestatzeko: bideo bat, CD bat, argazkiak, aldizkariak...
- Gurasoei eta ingurukoei laguntza eskatzeko esango diegu. Eta zaila egiten bazaie, guk lagunduko diegula.

Bigarren saioaren azalpena:

- Talde bakoitzak bere aurkezpena egingo dugu.
- Talde bakoitzak aurkezten duenari buruz hitz egingo dugu:

ebete

- Taldekideekin: Nola bilatu dute? Zergatik hautatu dute hori? Zaila egin zaie? Zerbaitek harritu ditu?...
- Talde osoarekin: Ezagutzen zuten? Gustatu zaie? Zerk harritu ditu?...
- Azken mezu bat emango diegu: Euskaraz gauza asko sortzen dira. Beti izan gara oso sortzaileak. Merezi du euskaraz zer sortzen den ezagutzeak, ziur gure gustuko gauzak eta gainera oso berritzaileak ezagutuko ditugula.

Hirugarren saioaren azalpena:

- Erreferentea: Euskal kulturarekin zerikusia duen pertsonai ezagun bat ekarriko dugu. Bere arloan zer eta nola egiten den aurkeztuko du. Adibidez: DJ bat ekarri dezakegu eta euskaraz azken urteetan zer sortu den erakutsi dezake, edo aktore7zuzendariren bat zineman eta antzerkian zer ari den sortzen ikusteko...

Euskara balio indartsuekin lotzea III

Kokatzea

Gaia: Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa.

Euskara balio indartsuekin lotzea nahi dugu. Gai honetako beste saioen jarduera osagarri bat da honakoa.

Helburua:

- Ikasleek euskara gauza berri eta erakargarriekin ere lotzea
- Beraiek eragile izatea besteei horren berri emateko.

Azalpena:

- Ikasturte osoan zehar landu daitekeen arloa da gizarte pertzepzioarena kultur munduarekin lotuta.
- Arlo honetako dinamikaren bat lantzen denean, jarduera osagarri hau proposatu dezakegu.
- Taldeak osatu ditzakegu. Talde bakoitzak arlo bat izango du eta horren berri eman beharko dute ikastetxean:
 - o Talde batek (bi-hirukoa): euskaraz musika talde berriren bat entzuten badu (irratian, telebistan...), izena apuntatuko du. Tarteka galdetuko zaie zer berri entzun duten eta zer gustatu zaien. Hori lortu eta gelan entzuteko ahalegina egin daiteke.
 - o Beste talde batek, kirolariren bat irratian edo telebistan euskaraz entzuten badu izen apuntatuko du, eta zein kirolean aritzen den.
 - o Hirugarren talde batek bertsolaritzari egingo dio jarraipena: zer gauza berritzaile egiten diren... baina baita bertsolarien batz besteko adina, irudia, lantzen dituzten gaiak (edo atentzioa deitu dieten gaiak)... Hemen ere, tarteka, irudi edo grabazioen bat txertatu daiteke saioaren batean.
 - o Telebistako programak, irratia, webguneak... arlo ezberdinak izan daitezke.
 - o

Euskara balio indartsuekin lotzea IV

BBB: Berria, Betikoa eta Bitxia

- Hiru abesti aukeratu nahi ditugu B+B+B
- Kaxa batean parpertzak jarriko ditugu eta ikasle bakoitzak bat atera behar du
- Papertzak hiru aukera hauetako bat aterako da: Berria–Betikoa–Bitxia
- Bakoitzak dagokio abesti bat aukeratu behar du hurrengo egunetan eta ekarri egin behar du. Helduen laguntza bilatu dezakete edo taldekideena.
- Abestiak izan behar dute:
 - o Berri bat: azken bi urteetan agertu den abesti berri bat (eta beraien gustukoa)
 - o Betiko abesti bat: abesti tradizional bat. Gustatzen zaiena.
 - o Bitxi bat: abesti bitxi edo arraro bat (musika estilo ez ohikoa edo exotikoa, musika tresna arraroa, abesteko modua...).
- Abestiak ekartzen dituztenean, hainbat modu egon daitezke aukeratzeko:
 - o Saio batean multzo bateko abesti guztiak entzutea eta bat aukeratzeko. Hiru saioen ondoren hiru abestiak aukeratu genituzke.
 - o Aste batzuetan zehar, tarteka abesti bat edo bi entzutea eta dagokion multzoaren araberrako puntuazioa ematea bakoitzak edo denon artean:
 - Abesti berria bada: gustatzen zaizkigu estiloa, melodia eta letra?
 - Tradizionala bada: Gustatzen zaigu? Ezaguna da? Abesteko modukoa?...
 - Bitxia bada: Benetan bitxia da? Zertan da bitxia?
- Aukeratu hiru abestiak eta letrak kartulinetan idatzi eta paretan itsatsiko ditugu (edo eskolako web orrian jarri).
- *Nahi izanez gero tartean behin errepikatu daiteke prozedura (talde berriak ezagutzeko, abesti berriak). Beste arlo batzuekin ere egin daiteke: zinema, marrazki bizidunak, bertsoak–bertsolariak,...*

**5.7.– Egoera
soziolinguistikoarekiko gizarte
pertzepzioa**

Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa I

Kokatzea

Gaia: Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa.

Euskararen erabileraren inguruan hausnartu nahi dugu. Herrian euskaraz zenbat erabiltzen den eta kalean nolako presentzia duen aztertu nahi dugu.

Helburua:

- Hizkuntza errealitateaz ohartzen hastea. Paisaia linguistikoaren azterketa egingo dugu euskarak zein leku betetzen duen ikusteko.

Lehenengo saioa:

1. atala

- Talde handia lau taldetan banatuko dugu. Zer landu nahi dugun azalduko diegu:
 - Karteletan, publizitatean eta kaleko eta dendetako errotulazioa aztertu nahi ditugu. Zein hizkuntzatan dauden ikusi nahi dugu.
 - Horretarako: egun bat aukeratu eta inguruko kaleetan ibili beharko dute argazki kamara digital batekin. Deigarria iruditzen zaien guztiari argazkia atera beharko diote.
 - Hurrengo egunetan etxera iristen den propaganda jaso behar du bakoitzak.
 - Animatzen badira, liburu denda batera ere joan daitezke, eta dendariari galdetu zenbat aldizkaria dauden euskaraz, gaztelaniaz, elebitan, beste hizkuntzaren batean... Argazki batzuk ere atera ditzakete.

2. atala

- Epe bat izango dute proposatutako lanak egiteko.

Oharrak:

- Kamara digitalarekin ibili behar dute kaleetan argazkiak ateratzen. Horri begira aukera bat baino gehiago daude: klase orduetan egitea eta irakasleok beraiekin joatea, klase orduetatik kanpo egitea eta beraien kaxa aritzea, klase orduetatik kanpo izatea baina guraso batzuen laguntza lortuta... Egokiena klase orduetatik kanpo egitea da, gidatuegia ez izateko.

Landu beharrekoak:

- Argazkiak atera behar dituztenean gurasoen laguntza behar badugu, gurasoengana nola jo erabaki beharko dugu: Ikasleen bidez? Oharren bat prestatu eta banatu beharko diegu?...

Bigarren saioa:

Aurreko egunetan bildu duten materiala aztertuko dugu.

Tarte bat utziko diegu beraien ondorioak ateratzeko:

- Talde bakoitzak 10 argazki aukeratu behar ditu

- Etiket ekarri duten informazioa aztertu behar dute: propaganda...
- Talde bakoitzak bere ondorioak aurkeztuko ditu (egokiagoa ikusten bada, hirugarren saio bat hartu daiteke ondorioetarako):
 - o Argazkiak erakutsi: inprimatuta edo pantailan
 - o Propaganda erakutsi eta ateratako ondorioak komentatu
 - o ...
- Azkenik, ondorio orokor batzuk ateratzen ahaleginduko gara: Euskararen presentzia guk uste bezalakoa al da? Deigarria zer egin zaie? Ondo ikusten al dute?...

Oharrak:

- Seguruena ondorioak ateratzen lagundu beharko diegu: galderak egin, zalantzak aurkeztu... Kontuan izan helburu xumeak direla: konturatzea nahi dugu, euskararen kaleko presentzia ez dela askotan dugun pertzepzioaren modukoa.

Landu beharrekoak:

- Argazkien eta ondorioen aurkezpenak nola egin behar dituzten landu beharko dugu: Power point bidez? Inprimatuta? Zertan lagundu beharko diegu?

Osagarria:

Dinamika honen osagarri egokia izan daiteke ateratako ondorioekin ikasleekin aurrera pausoak zein izan daitezkeen aztertzea. Eta, aurrerapauso horiek emateko eragile egokiak zein diren aztertzea.

Horren ondoren, gutunak prestatu eta idatzi daitezke eta eragile horiengana bidali.

Bilboko Karmelo ikastolan 2009–2010 ikasturtean frogatzen zuten hau egin zenean, Udalera eta Komertzioen elkartera bidali ziren gutunak: zer ikusi zen egoki azalduz, non ikusten ziren hutsuneak, proposamen zehatz batzuk eginaz...

Erantzunak ere jaso ziren, eta hori ikasleekin aztertu zen beste saio batean

Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa II

Kokatzea

Gaia: Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa.

Euskararen erabileraren inguruan hausnartu nahi dugu. Herrian euskaraz zenbat erabiltzen den eta kalean nolako presentzia duen aztertu nahi dugu.

Helburua:

- Hizkuntza errealitateaz ohartzen hastea. Kaleko erabilera neurketa egingo dugu.

Lehenengo saioa:

1. atala

- Klean euskara zenbat erabiltzen den neurtu nahi dugula esango diegu.
- Boluntarioak eskatuko ditugu: hiruko taldeak osatu behar dituzte.
- Talde asko osatzen badira, herria guneka zatituko dugu eta bakoitzari gun bat emango diogu.
- Bi neurketa egitea proposatuko diegu: astegun arratsalde batean (18.00ak aldera) eta larunbat goiz batean (12.00ak aldera).
- Neurketa bakoitza 30 minutukoa izango da.
- Kide bat gaztelania neurtzeaz arduratuko da. Bigarrena euskara neurtzeaz. Hirugarrena beste hizkuntzak neurtzeaz.
- Kide bakoitzak garbantzua hartuko ditu poltsiko batean. Neurketa egiten ari direnean, kaletik oinez ibiliko dira, paseatzen. Jendearen albotik pasatzean zein hizkuntzatan ari diren entzun behar dute: gaztelaniaz ari badira gaztelania neurtzen duenak hainbat garbantzua pasa behar ditu poltsiko batetik bestera, euskaraz ari badira euskara neurtzen duenak, eta beste edozein hizkuntza bada hirugarren kideak pasako ditu garbantzua...
- Pertsona kopurua neurtu behar dugu. Beraz: hizketan bat bakarra joan arren, lau pertsonako taldea bada. Laurak ari direla hizkuntza horretan neurtuko dugu. Beraz, lau garbantzua poltsiko batetik bestera.
- Amaitzean, orri batean jasoko dugu zein neurketa izan den (lekua, eguna eta ordua) eta hizkuntza bakoitzean zenbat ari ziren.
- Bi neurketak egitean, kartulina batean jasoko ditugu emaitzak gero klasean aurkeztu ahal izateko.

Kontuan hartzekoak:

- Ikasleek dinamika ondo ulertzea oso garrantzitsua da emaitzak ondo ikusi ahal izateko.
- Garbi utzi behar zaie ez dutela beraien gogoaren arabera neurtu behar, errealitate bat ikustea dela helburua.
- Norbaiten ondotik pasatzean, ez badute argi zein hizkuntzatan ari ziren (euskaraz, gaztelaniaz edo beste hizkuntzaren batean): Ez neurtu.
- Diskrezioz aritu daitezela: ez dute geratu beharrik, ez dute pasa orduko komentarioak egiten hasi beharrik.... Paseatzen ari dira, besterik ez.

Bigarren saioa:

- Talde bakoitzak neurketaren berri emango du.
- Zeintzuk dira datuak? Gune guztietan antzekoa da? Zerk eman die atentzia? Espero zituzten datuak dira?
- Ezagutza datuak emango dizkiegu: Zarautzen zenbatek dakiten euskara.
- Zergatik ez doaz bat erabilera eta ezagutza datuak? Non daude zailtasunak?
...
- Guztien artean hausnarketa hori egingo dugu.
- Udalak erabilera neurketak egiten baditu, datu horiek eskuartearen izatea egokia litzateke. Soilik beharrezkoa ikusten badugu erabiliko genituzke.
Adibidez:
 - o Datuen irakurketa negatiboa egiten badute (dena delako arrazoiengatik) eta beraien datuak Udalarenak baina hobeak badira, datu horiek erakutsiko genizkieke eta ideia hau bota: "Badirudi erabilera gora doala". Zergatik? Ez al da positiboa?...
- Kartulina guztiak ikastetxeko guneren batean itsatsiko ditugu.

Osagarria:

Dinamika honen osagarri egokia izan daiteke ateratako ondorioekin ikasleekin aurrera pausoak zein izan daitezkeen aztertzea.

Zer egin daiteke herrian euskara gehiago erabil dadin? Zer bururatzen zaie?

Ondorioak idatzi daitezke, gutun edo artikuluko moduko bat prestatu, eta gurasoei bidali edota herriko komunikabideren batean argitaratu (eskolako web gunea, herriko aldizkarian...).

Beste aukera bat:

Beste aukera bat izan daiteke ikastetxeko erabilera neurketa ere egitea (pasiloak eta patioa). Horrekin bi gauza ikus daitezke:

- Ikastetxean euskararen erabilera kalean baino handiagoa dela: eta horri buruz hitz egin dezakegu (mezu positibo edo errefortzuak eman, arrazoiez hitz egin...).
- Ikastetxean ere aurrera egin daitekeela ikustea: eta erabilera indartzera begira zer egin dezakegun aztertu.

Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa III

Kokatzea

Gaia: Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa.

Euskararen erabileraren inguruan hausnartu nahi dugu. Eskualdetik kanpo zenbat euskara erabiltzen den ikusi nahi dugu,

Helburuak

- Inguruan duten hizkuntza-errealitateaz jabetzen hastea.

Jardueraren azalpena

- Aurreko jardueraren modukoa da: Kaleko erabilera neurketa
- Baina erabilera neurketa ez dugu herrian egingo, herritik kanpo baizik:
 - o A aukera: Txango bat egiten dugunean, ekintzen artean, goazen herri bateko erabilera neurketa egin dezakegu.
 - o B aukera: Datozen asteetan beste herri batera ba ote doazen galdetu diezaiekegu eta herri horretan neurketa egitera gonbidatu.
- Ondoren, eskolako saio batean, horri buruz hitz egin dezakegu:
 - o Beraiek zuten pertzepzioaz galdetu: altuagoa edo baxuagoa espero zuten?
 - o Ezagutza datuak bilatu eta horiekin konparatu.
 - o Herriko datuekin konparatu
 - o ...

5.8.– Kontsumo eskaintza

Kontsumo eskaintza I

Kokatzea

Gaia: Kontsumo eskaintza eta erreferenteak

Euskarazko erreferenteak izatea nahi dugu. Konturatzea nahi dugu zenbat erreferente dituzten beste hizkuntzetan, eta batzuetan euskarazkoak ez dituztela gehiegi ezagutzen.

Helburua:

- Euskarazko erreferenteak izatea.
- Ikasleek zuzenean parte hartzea erreferenteen bilaketan.

Azalpena:

- Talde txikiak egingo ditugu: 3 edo 4 kideko taldeak.
- Hiru hizkuntza: euskara, gaztelania eta ingelesa.
- Taldetxo bakoitzak hizkuntza bat aukeratu behar dugu. Nahiko orekatua geratu behar du.
- Sei galdera egingo dizkiegu. Banaka. Bakoitza erantzuteko bi minutu izango dituzte.
 - o Aktoreak
 - o Musika taldeak edo musikariak azken bi urteetan diskoren bat atera dutenak
 - o Webguneak edo aplikazio informatikoak
 - o Kirolariak (hizkuntza horrekin identifikatzen dituztenak)
 - o Telebista programak edo irrati saioak
 - o Bestelako pertsonai ezagunak
- Bakoitza erantzun ondoren, zenbat jarri dituzten esango dute eta zerrenda irakurriko dute.
- Ikustea nahi dugu zenbait kasutan euskarazkoa ez dela zerrendarik luzeena.
- Eskasena geratu diren zerrendak osatzera gonbidatuko ditugu. Erdaraz osatutako zerrenda adinakoa izan behar du eta kartulinetan idatziko ditugu. Pasiluan jarriko ditugu.

Kontsumo eskaintza II

Kokatzea

Gaia: Kontsumo eskaintza eta erreferenteak

Euskarazko erreferenteak izatea nahi dugu. Ikasturte osoan zehar egin daitekeen jarduera bat proposatzen da.

Helburua:

- Ikasleek euskara gauza berri eta erakargarriekin ere lotzea
- Euskarazko erreferenteak izatea.
- Ikasleek zuzenean parte hartzea erreferenteen bilaketan.

Azalpena:

- Erreferenteen murala osatuko dugu
- Irakasleak astero kultur jarduera edo ikuskizun batekin lotura duen hiru proposamen eramango ditu gelara:
 - o Herrian izango den ekitaldi bat
 - o Zinea
 - o Musika abesti bat (interneten ikus daitekeena)
 - o Pelikularen bat (interneten ikus daitekeena)
 - o Web-gune bat
 - o Bertso saio bat: zuzeneko, telebista bidezkoa...
 - o Telebista saio bat
 - o Aldizkari bat, liburu bat...
 - o ...

- Ikasleek ere eraman ditzakete proposamenak. Baina irakasleak beti eramango ditu beti egon dadin non aukeratua.
- Guztion artean bat aukeratuko da.
- Astean zehar hori ikustera-entzutera-bizitzera gonbidatuko ditugu.
- Noski, borondatezkoa izango da.
- Astea pasatzean, horri buruz galdetuko zaie: Zer moduz? Gustatu zaie? Zein da inpresioa?...
- Mural handi bat jarriko dugu gelan edo pasiloan. Jarduera egin-ikusi dutenek puntuazio bat emango diote bakoitzari: lehenengoa erdian jarriko da eta besteak gorago edo beherago. Ekitaldia-ekintza zein izan den jarriko da eta adjektibo edo hitz pare bat ondoan.
- Astero jarduera berri bat aukeratuko da.
- Ikasturtean zehar murala gero eta gehiago osatuko dugu. Gero eta gauza gehiago, gero eta beteagoa, gero eta erreferente gehiago...
- *Ikasturte osoa zehar egin beharrean denbora laburragoan ere egin daiteke intentsitate handiagoa jarrita (bi astetan zehar egunero, adibidez).*

Kontsumo eskaintza III

Kokatzea

Gaia: Kontsumo eskaintza eta erreferenteak

Euskaraz kontsumitu ditzaketen programen eta produktuen berri izatea nahi dugu. Gehiago edo gutxiago gustatu, gutxienez ezagutu ditzatela.

Helburua:

- Ikasleek euskaraz eskura zein programa eta produktu dituzten ezagutzea.

Azalpena:

- Gaia kokatuko dugu:
 - o Euskaraz zein programa dauden ezagutzea nahi dugu: telebistan, irratan... Prentsa edota aldizkariei buruz, komikiei buruz edota interneteko webguneei buruz ere hitz egin nahi dugu.
- Ideien ekaitza egingo dugu:
 - o Telebistako euskarazko zein programa ezagutzen dituzte? Irrati saiorik? Aldizkaririk? Webguneak?
 - o Ondoren, bakoitza hartu eta beraien gustukoa den edo ez galdetuko diegu.
 - o Bestalde, aurretik guk ere zerrenda bat osatuko dugu, ikasleei ezagutzera emateko programak izan daitezkeenak: Irrien Lagunak aldizkaria, telebistako saioak, Euskadi Gaztea...
- Taldeka jarriko ditugu. Zerrenda jarriko dugu arbelean eta talde bakoitzak, txandaka, zerrenda horretatik hiru aukeratu beharko dituzte.

- Astero, kutxa batetik papertxo bat aterako dugu. Azalpen horretan agertuko da zerrendako programa bat. Ikasleek aste horretan zehar programa hori ikusi-irakurri behar dute eta hurrengo astean besteei aurkeztu (aldizkaria bada aldizkaria eramanaz, telebista bada zatitxo bat interneten jarritz...). Zein ezaugarri dituen, noiz ematen duten, gustukoa ote duten...
- Astero astero saio baten berri izango dute: beraiek ikusi eta aztertu dutena.

Oharra:

- Kontsumo eskaintzarekin lotuta, eta antzeko dinamika erabiliz, Durangoko Azokan aurkeztuko diren nobedadeak aztertu daitezke. Badok.info atarian musikako nobedadeak jartzen dituzte eta Durangoko Azokaren aurreko asteetan ikasleei astean behin nobedade horiek entzuteko aukera eman diezaiekegu eta horiei buruz hitz egin.

6.- JARDUERA OSAGARRIAK

Jarduera osagarriak I: Bizkotxoaren astea, euskara bai goxoa!

Kokatzea

Ikasleek euskara erabiltzeko ahalegin berezi bat egitea nahi dugu gutxienez denbora tarte batean: erronka irauten duen denboran.

Horrelako dinamikek ez dute balio hizkuntza-ohiturak aldatzeko, baina ikasleentzat motibagarriak dira, ahalegin berezi bat egiten dute eta irakasleek bi helburu lortzeko erabil ditzakete:

1.- Ahalegin horri errefortzu positiboak ematea eta ikasleek euskara erabiltzeko ahalegina sentsazio positiboekin lotzea.

2.- Erabilerari dagokionez gutxieneko helburuetara hurbiltzen laguntzea: irakasleak helburu lorgarri moduan ikusten duen horretara hurbiltzen laguntzea eta irakasleak erabiltzen dituen oinarrizko estrategien tresna lagungarri moduan erabiltzea.

Azalpena:

- Gaia kokatzea: pozik gaude euskara erabiltzeko ahalegina egiten dutelako. Badakigu batzuk erraz eta beste batzuk zailtasunekin, baina erabiltzeko ahalegina egiten dutela. Horretan aurrera pausoak ere eman nahi ditugu. Gainera, euskara asko erabiltzen badute gero eta erraztasun gehiago ere izango dute. Euskararen erabilera ikasturte honetan ere handia izatea nahi dugu, eta horretan ahaleginduko gara. Ekintza bereziak ere egingo ditugu eta horrelako bat proposatu nahi diegu aste honetan.
- Bizkotxoaren astea: euskara bai goxoa! Aste honetan jolas bat proposatu nahi diegu. Konturatzea nahi dugu nahi badute gero eta gehiago ere erabili dezaketela. Horregatik, erronka bat proposatuko diegu: bizkotxo bat egiteko osagaiak lortu behar dituzte.
- Zein osagai behar dira bizkotxo bat egiteko? Denon artean osatuko dugu zerrenda eta kartulina batean idatziko dugu.
- Nola lortu osagaiak? Euskara asko erabiliz.
- Aste horretan erabileran eragiteko prozedura askotan erabiliko dugu (taldeka banatzea, parte bihurtzea...) eta helburua ere askotan gogoraraziko diegu. Gure helburua da taldearentzat jarritako helburura hurbiltzea.
- Egunero tarte bat hartuko dugu erabilera ebaluatzeko beraiekin batera: berdin zaigu zer esaten duten. Kontuan hartuko dugu baina batez ere baloratuko dugu guk zehaztutako helburura hurbiltzen ari garen.
- Ebaluazioaren ondoren, bizkotxoa merezi badute, taldeko bati txartel bat emango diogu eta horrekin joan beharko du idazkaritzara. Bertan emango diote txartelena jartzen duena: gurina, arrautzak, irina ...
- Gelako apal batean, denen bistan, jarriko ditugu egunero lortzen goazen osagaiak.
- Zerrenda osatzean, irakasleak guztiak bilduko ditu eta hurrengo egunean bizkotxo bat eramango du denen artean jateko.

- Zenbat denbora behar izan dugu osagaiak biltzeko? Zaila egin al zaigu? Bizkotxorik gabe ere prest al gaude euskara asko erabiltzen jarraitzeko? Aurrerago berriz ere egin nahi al dute horrelako zerbait?
- Errefortzu positiboak emateko ahalegina egin behar dugu: pozik gaude azkar lortu dituztelako osagaiak, euskara asko erabiltzen dutelako, batzuen kasuan zailtasunekin bada ere ahalegina egiten dutelako ...

Osagarriak:

- Ohiko osagaiez gain, bizkotxoari osagarri bereziak eransteko aukera ere eman dezakegu: txokolatea, pinportatxoak ... Baina, horiek ere lortu nahi badituzte, epe bat ere zehaztu dezakegu: astebetean osagai guztiak lortzen badituzue bi hauek ere bai ...

Kontuan hartzekoak:

- Euskara asko eta gustura erabiltzea nahi dugu: guk lagundu behar diegu helburua lortzen. Horregatik da oso garrantzitsua aste horretan erabileran eragiteko prozedura askotan erabiltzea eta gure ebaluazioa hortik abiatzea.
- Kanpaina motza izan dadila: ahal dela aste baten barruan egitekoa. Egun bakarrean osagai bat baino gehiago ere lortu ditzakete.

Jarduera osagarriak II: Euskararen ontziko mezu sekretua

Kokatzea

Ikasleek euskara erabiltzeko ahalegin berezi bat egitea nahi dugu gutxienez denbora tarte batean: erronka irauten duen denboran.

Horrelako dinamikek ez dute balio hizkuntza-ohiturak aldatzeko, baina ikasleentzat motibagarriak dira, ahalegin berezi bat egiten dute eta irakasleek bi helburu lortzeko erabil ditzakete:

1.- Ahalegin horri errefortzu positiboak ematea eta ikasleek euskara erabiltzeko ahalegina sentsazio positiboekin lotzea.

2.- Erabilerari dagokionez gutxieneko helburuetara hurbiltzen laguntzea: irakasleak helburu lorgarri moduan ikusten duen horretara hurbiltzen laguntzea eta irakasleak erabiltzen dituen oinarritzko estrategien tresna lagungarri moduan erabiltzea.

Prozedura:

- Euskararen ontziko mezu sekretua.
- Behar ditugu:
 - o Bi botila: bat litro batekoa eta bestea bost litrokoa (edo beste kopuru batzuk izan daitezke).
 - o Plastikozko pilota txiki bat: barruan paper bat sartu eta botila handian sartu daitekeena (tabernetako makinetako oparidun pilota horiek balio dezakete).
- Botila handian, hutsa dagoela, pilota sartuko dugu eta pilotaren barruan mezu sekretua egongo da idatzita.
- Botila urez betetzea lortzen dutenean, pilota gora igoko denez, pilota atera ahal izango dute eta mezua irakurri.
- Botila handia urez betetzeko, egunero botila txikian lortu behar dute ura.
- Botila txikia urez betetzeko euskara “asko” erabili behar dutela esango diegu: helburua dela beraiek euskara asko erabiltzen saiatzea (gelan, patioan...), horretan gustura aritzea eta guk lagunduko diegula. Egunero galdetuko diegu euskara “asko” erabili ote duten: gaur asko erabili duzue? Atzo baino gehiago? Nork lortu du normalean egiten ez duen batekin edo egiten ez duen egoera batean euskara erabiltzea? Zer ikusi dugu guk?... Ebaluazioaren arabera, botila txikia osoa beteko dute, erdia... Lortzen duten ur hori botila handira botako dute.
- Kanpaina amaituko da botila handia bete eta mezua irakurtzen dutenean (baina ez dadila gehiegi luzatu, astebete eta aste eta erdi artean gehienez ere).
- Zein izan daiteke mezua?
 - o Beti agertu behar du: Euskararen erabilera baloratzen duen mezua (egin duten ahalegina), gure poza adierazten duena...
 - o Sariaren bat ere jar daiteke
 - o Sariaren ordezkari nahikoa izan daiteke beste taldeek ez duten informazio bat ematea: inauterietako mozkorra zein izango den, udaberriko txangoa nora egingo den, hurrengo azterketan agertuko den galdera bat, ikastetxera etorriko den pertsonai ezagunen bat...
- Kanpainak irauten duen denboran (aste bat, 3-4 egun...) erabileran eragiteko zehaztu dudana prozedura askotan erabiliko dute (intentsitate handia emango diot epe horretan): taldeka banatzea, zentro-partea

bihurtzea, helburua gogoraraztea... Horrek lagunduko digu talderako helburura hurbiltzen.

- Ematen dugun mezua behar bezain erakargarria bada, kanpaina tarteka errepikatu dezakegu.
- *Beste aukera bat: ikasleak zerbait askotan galdetzen ari badira, zerbait jakin nahi badute, informazio hori ontzian dagoela esan eta kanpaina bat jarri dezakegu abian edozein momentutan. Hau da, edozein momentutan egin dezakegu kanpaina (noski, gehiegitan egiten badugu, indarra galduko du).*

Gela barrurako edo gelaz kanporako:

- Bietarako balio du kanpainak
- Gelaz kanpo bada, beraiekin auto-ebaluazioa egiteaz gain, esango diegu irakasleok ere adi ibiliko garela eta lagunduko diegula patioan eta pasilloetan euskara erabiltzen: taldeetara hurbilduz, elkarrizketak sortuz...

Jarduera osagarriak III: Espiak eta konplizeak

Kokatzea

Ikasleek euskara erabiltzeko ahalegin berezi bat egitea nahi dugu gutxienez denbora tarte batean: erronka irauten duen denboran.

Horrelako dinamikek ez dute balio hizkuntza-ohiturak aldatzeko, baina ikasleentzat motibagarriak dira, ahalegin berezi bat egiten dute eta irakasleek bi helburu lortzeko erabil ditzakete:

1.- Ahalegin horri errefortzu positiboak ematea eta ikasleek euskara erabiltzeko ahalegina sentsazio positiboekin lotzea.

2.- Erabilerari dagokionez gutxieneko helburuetara hurbiltzen laguntzea: irakasleak helburu lorgarri moduan ikusten duen horretara hurbiltzen laguntzea eta irakasleak erabiltzen dituen oinarrizko estrategien tresna lagungarri moduan erabiltzea.

Helburuak:

- Euskararen erabileraren inguruan hausnartzea
- Erronka bat proposatzea
- Ohiturei buruz eta ohiturak indartzeari/aldatzeari buruz hitz egiten hastea.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatuko dugu: ikasturte honetan ere euskararen erabilera indartzen jarraitu nahi dugu. Euskaraz gero eta hobeto eta gero eta errazago egiten duzue, eta iruditzen zaigu euskara pixka bat gehiago erabiliko bazenute oraindik erraztasun gehiago izango zenuketela. Gainera, oso ondo ere pasa daiteke euskara erabiltzeko ahaleginean.
- Noiz pasa izana dute ondo euskara erabiltzen? Noiz sentitu izan dira eroso? Zer iruditzen zaie jolas baten bidez elkarri euskara pixka bat gehiago erabiltzen laguntzea? Baldintzak bi izango dira: saiatu egin behar dute eta ondo pasa behar dute.
- *Konplizeak eta espiak* jolasa proposatuko diegu:
 - o Aste baterako (edo bi asterako) erronka izango da.
 - o Egunero gela bakoitzean konplize bat eta espia bat jarriko dira.
 - o Ikasle bakoitzari astearen hasieran 10 txartel emango dizkiogu.
 - o Konplizeak euskara erabiltzen lagundu nahi dizue eta saritu egiten zaituzte.
 - o Espiak tranpa egiten (kasu honetan erdaraz egiten) harrapatu nahi zaituzte.
 - o Nor izango da konplizea? Egunero ikasle bat. Boluntarioa izan daiteke edo zozketa bidezkoa.
 - o Nor izango da espia? Berdin. Egunero ikasle bat. Boluntarioa edo zozketa bidezkoa.

Erronka:

- Goizero, lehenengo orduan, konplizea eta espia aukeratuko dira.
- Egunean zehar lau momentutan hartu behar dute paper hori, 5 minutuko tarteak izango dira. Hauek dira tarteak:
 - Klasetik klaserako hiru tarte goizean zehar
 - Atsedan orduko tarte bat
- Espia edo konplize moduan jokatu behar dutenean, abisatu egin behar dute ozen. Lanean ari direla abisatu behar dute:
 - Konplizea lanean ari da! Animo!
 - Kontuz! Espia zelatzen dabil!
- Hurrengo bosti minutuetan ikasleek elkarrekin euskaraz egiten ahalegindu behar dute:
 - Konplizeak, euskaraz ari direla ikusten badu, hurbildu eta goxoki bana emango die euskaraz ari direnen (irakasleak emango dizkio goizean goxokiak).
 - Espiak, aldiz, erdaraz harrapatzen baditu txartel bana eskatuko die (astea hasieran eman dizkiegu).
- Dinamika errepikatuko dugu egunero aste batean zehar: helburua gogorarazi, erabileran eragiteko prozedura aplikatu eta jolasa gogorarazi eta jolastera animatu.

Bigarren saioaren azalpena:

- Astearen amaieran jolasa ebaluatuko dugu: zenbat txarteekin bukatu du bakoitzak? Zenbat goxoki lortu dituzte? Erraza egin al zaie? Non izan dituzte zailtasunak? Ondo pasa al dute? Merezi al du horrelako saiakera gehiago egiteak? Eta tarteka eskatzen badiegu euskaraz egiteko, saiatuko al dira euskara mantentzen jolasik gabe ere? ...
- Errefortzu positiboak emateko ere erabiliko dugu: ahalegina asko baloratzen dugula, asko nabaritu dela euskararen erabilera eskolan, txikiagoentzat oso eredu ona eman dutela...

7.- Herriko eragileekin elkarlanean

Ikasleen euskararekiko jarreretan eragitera begira ikastetxean lan handia egiten da eta bide horretan aurrera pausoak ematera begira hainbat jarduera proposatzen dira dokumentu honetan.

Baina oso kontuan izan behar da jarreretan eragitera begira benetan lagungarria izan daitekeela herriko eragileekin elkarlanean aritzea.

Horren erakusgarri da azken bi ikasturteetan Loramendi Euskara Elkartekoekin eta Institutuko gazteekin egindako saioak:

- Loramendiko kideen laguntzaz, institutuko gazteak LHko 6. mailakoekin bi saio egin dituzte. Haiek erreferente dira ikastetxeko ikasleentzat. (jarduera hori *Identitate kolektiboa I* puntuan jaso da).

Dokumentuan proposatzen diren jarduerak irakasleen bidez dinamizatzeak dira, baina horrelako aukerako kontuan izaten badira zenbait kasutan herriko eragileak inplikatu daitezke, eta jarduerak aberasteaz gain irakasleentzat ahalegina txikiagoa da.

Modu horretako gauza gehiago ere egin daitezke. Hainbat jardueretan elkarlanerako aukera egon daiteke, eta merezi du bide hori kontuan izateak.